# ttipi ttapa

426



**Mikel Taberna eta Maddi Iratzoki** 03

«Ibaiak nahi duen tokiraino» haurrentzako ipuina argitaratu du Pamielak, Mikel Tabernaren testuekin eta Maddi Iratzokiren ilustrazioekin.



**Niko Mindegia Europan lehian** 28

Jubenil mailako Europako eskubaloi txapelketan parte hartuko du Iruñeko Portland San Antonio taldean ari den Niko Mindegia 17 urteko doneztebarrak.

2006ko uztailaren 13a • XXVI. urtea



## 04 Etorkizunean ere Leitzan Aurrera





# ttipi TXARTELArekin




## *ttipi-ttapa doan eta deskontuak*

## DESKONTUAK

### >> AUTO ETA BIZIKLETA TAILERRAK

| | | |
|---|---|---|
| BERAUTO | Bera | %5 Errekanbiotan |
| ZALAIN MOTOR | Bera | %5 Errekanbiotan |
| KATEA BIKE | Bera | %5 Konponketetan |
| DATUCELAY | Elizondo | %15 Bateria eta amortiguadoretan |
| SANSIÑENA | Elizondo | %10 Olio-aldaketetan |

### >> AUTO ESKOLAK

| | | |
|---|---|---|
| SEMPER | Bera | %10 Matrikulan |

### >> ARGAZKI DENDAK

| | | |
|---|---|---|
| GOIKO | Bera | %10 Karrete, errebelatze... |
| AYLA | Bera | %10 Errrebelatzea, NAN argazkietan... |
| MENA | Doneztebe | %10 Errrebelatzea |
| MENA | Elizondo | %10 Errrebelatzea |
| ZALDUA | Doneztebe | %10 Produktuetan |
| ZALDUA | Elizondo | %10 Produktuetan |

### >> ARROPA DENDAK

| | | |
|---|---|---|
| EDURNE | Bera | %5 ( 30€ tik goiti, eskura ord. ) |
| J.J. PICABEA | Doneztebe | %10 Galtza-marka batzuetan ez |
| KATTALINGORRI | Elizondo | %10 |
| IPINGI | Elizondo | %10 ( 30€ tik goiti ) |
| FANTXIKE | Elizondo | %10 ( 30€ tik goiti ) |

### >> BITXIDENDAK

| | | |
|---|---|---|
| ETXARTE | Lesaka | %10 Bitxietan |

### >> ETXETRESNEN DENDAK

| | | |
|---|---|---|
| ALTZURI | Lesaka | %5 Etxetresnetan |

### >> ESTETIKA ZENTRUAK

| | | |
|---|---|---|
| AMAIA | Doneztebe | %5 Kosmetikan (30€ tik goiti)<br>%10 Erregalo artikuluetan.<br>Merkealdietan ez |

### >> KIROL DENDAK

| | | |
|---|---|---|
| IPARLA KIROLAK | Elizondo | %8 (30€ tik goiti) |
| ZELA KIROLAK | Bera | %5 |
| AGARA KIROLAK | Bera | %5 Kirol artikuluetan |
| BIXKIAK | Lesaka | %10 Kirol artikuluetan |

### >> LENTZERIAK

| | | |
|---|---|---|
| MARICRUZ | Doneztebe | %10 (30€ tik goiti) |
| DEÑE | Lesaka | %10 Lentzerian |
| MARICRUZ | ELizondo | %10 (30 € tik goiti) |

### >> LIBURU DENDAK

| | | |
|---|---|---|
| NAFARPRESS | Elizondo | %10 Liburu eta ikas materialetan<br>Testuliburu eta bideoak ezik |
| MAIMUR | Leitza | %10 oparitzeko artikuluetan |

### >> OPTIKAK

| | | |
|---|---|---|
| OSTARGI | Bera | %10 (30€ tik goiti) |
| ARGIBEL | Elizondo | %10 anteoju graduatuetan |
| ARGIBEL | Doneztebe | %10 anteoju graduatuetan |

### >> PENTSUAK

| | | |
|---|---|---|
| MENDAUR | Doneztebe | %5 Zakurrena, katuena... |

### >> TINDATEGIAK

| | | |
|---|---|---|
| JAIONE | Doneztebe | %10 (12€ tik goiti) |

### >> ZAPATADENDAK

| | | |
|---|---|---|
| KALOTXA | Bera | %5 (18€ tik goiti) |
| OSTIZ | Doneztebe | %10 |
| TXINELKA | Lesaka | %10 |

**TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK**
**saltzen dituen txartelak erosiz,**
**gauza aunitz lor ditzakezu:**
**ttipi-ttapa lagundu,**
**eskualdeko dendak bizkortu**
**eta erosketak merkeago egin**

***Informazio gehiago:***

***948 63 54 58***

## DATUAK...

• Mikel Taberna Alkaiagako idazleak helduen literaturatik haurren literaturara jauzia egin du «Ibaiak nahi duen tokiraino» liburuarekin.

• Aitzinetik hiru liburu argitaratuak ditu: «Mendearen ilunabarrean» poema bilduma, «Errege eguneko panpina» ipuina eta «Txokolatezko dinamita» ipuin bilduna.

• Kaleratu berri duen liburua argitaratzeko orduan marrazkiak egiteko Maddi Iratzoki beratarraren laguntza izan du.



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

**Mikel TABERNA-Maddi IRATZOKI** *Idazlea eta ilustratzailea*

# «Haurrentzat idaztea ezberdina da, bertze ahots bat bilatu behar baita»

Xan HARRIAGUE

**Haurrendako ipuina egitea nolako esperientzia izan da?**

Mikel Taberna: Neretzat hagitz esperientzia polita izan da, ez nuen sekula haurrentzat deus idatzi eta bertze aldetik, ilustratzaile batekin ez nuen nere lana osatua. Hagitz gauza polita izan da eta gustora gelditu naiz egindako lanarekin.

Maddi Iratzoki: Nere aldetik ere aukera polita izan da. Ilustrazioaren munduan ez daukat oraindik esperientziarik eta bertze mundu bat ezagutzeko aukera ona izan da.

**Zergatik haurrei zuzendua?**

M.T.: Haurrei berexiki zuzendutako zerbait idazten asmatzen ote nuen proba egin nahi nuen, seme-alabak ere baditugu eta haiek gogoan hartuta hasi nintzen idazten. Liburua akautu orduko koxkortu zaizkigu eta beharbada ttiki gelditu zaie.

**Helduentzat idaztea baino errazagoa al da haurrentzat idaztea?**

M.T.: Diferentea da. Aldaketa handi xamarra izan da, bertze ahots bat bilatu behar izan dudalakoz. Denbora guzian ibili behar nuen idatzi eta urratzen, berregiten... hartzaileak diferenteak izanen zirela pentsatuz, nahiz eta edozeinek irakurtzen ahal duen. Buelta aunitz eman dizkiot testuari, uste nituenak baino gehiago, baina hori da gure egitekoa, zerbait gustagarria egitea irakurleentzat.

> «Abenturazko historia egin nahi nuen, entretenigarria, irakurleak nolapaitere gozatzea testuarekin, aisa irakurtzea...»

**Haur baten baitan sartu behar izan duzu?**

M.T.: Neurri batean bai, zerbait idazten duzularik lehenbiziko irakurlea zu zeone zara. Kasu honetan, aldiro pentsatu behar nuen nik idazten nuen hura nola hartuko zuen irakurle horrek.

**Testuan sartuz, zer kontatzen du liburuak?**

M.T.: Abenturazko historia egin nahi nuen, zerbait entretenigarria, irakurleak nolapaitere gozatzea testuarekin, aisa irakurtzea... Protagonista nagusia txakur bat da eta txakurraren ahotik kontatua heldu zaigu istorioa. Jabearekin ibai batean beheiti abiatu eta bidean gertatzen zaizkien abenturekin osatzen da narrazio osoa.

**Zergatik aukeratu duzu zakur bat narratzaile gisara?**

M.T.: Haurrik ez da agertzen ipuinean, baina txakurra berez haur bat da. Txakurrak sekulan handitzen ez diren haurrak direla erraten dute. Txakurraren ahotsa haur baten ahotsaren antzekoa dela iruditzen zait.

**Maddi, zer sentitu zenuen Mikelek ilustrazio lana egitea proposatu zizunean?**

M.I.:Poz handia. Aunitz gustatzen zait irakurtzea eta ilustrazioan gauza aunitz sartzen ahal da. Bertze norbaitekin lan egitea aberasgarria da.

**Esperientzia berria eta lan handia izanen zen...**

M.I.: Bai, baina gustora egiten diren lanak ez dira hain pisutsuak.

**Haurrek egindako marrazkiak dirudite, baina aldi berean oso landuak... Nola lortzen da hori?**

M.I.: Neurri batean marrazki xinpleak izatea nahi nuen, sofistikaziorik gabe. Txuribeltzean izan behar zuenez, horrek ere mugatzen dizu. Haurrentzat lan egiteak ere dudak sortu dizkit.




Utzitako Argazkia

Ez dago garbi Aurrera elkartea noiz sortu zen, baina Leitzako eguneroko bizimoduan aspaldian errotua dago.

EKAINAREN 29AN EGINDAKO BILERAREN ONDOTIK

# Leitzako Aurrera elkarteak aurrera eginen du batzorde berriarekin

**Leitzako kirol, kultur eta besta giroa ez dago ulertzerik Aurrera elkartea gabe. Futbol taldeak, pilota eskola, dantza taldea, Errege Kabalgata, Santiburtzioetako Plazaola aldizkaria, sortu berria den Aurrera Perra Zaldizale taldea... Halere, 300 bazkide dituen elkartearen etorkizuna kinka larrian izan zen ekainean. Bi urtetik behin aldatzen da zuzendaritza batzordea eta horretarako ekainaren 16an egin zen lehen bilerara hiru bazkide bakarrik agertu ziren. Karlos Agirre presidenteak izan ezik, batzordeko beste kide guziek karguak uzteko borondatea zutela kontuan hartuz, bigarren eta azken saiakera egin zuten ekainaren 29an, elkartea desagertzeko zegoen arriskuaz ohartarazi ondotik. Oraingoan bai, 50 bazkide agertu ziren eta batzuk laneko prest.**

Aitor AROTZENA

Leitzako Aurrera elkartea aspaldikoa da Leitzan. Inork ez daki garbi noiz sortu zen, baina 1927. urteko bafutbol taldearen argazkia bada. Halere, 1970. urtera arte ez ziren estatutuak onartu, orduan lokala alokatzeko. Karlos Agirre izan zen lehen presidente ofiziala, 1973an. 33 urte beranduago ere bera da presidente. Hiru hamarkada hauetan, kontuak erabat aldatu direla aipatu digu: *«Oraingo honekin laugarren aldia da presidente nagoela. Aurreko aldia 1973an izan nintzen eta gauzak asko aldatu dira, Aurreran bezalaxe beste leku guzietan. Lehenago edozer gauza egiteko jende asko biltzen zen, pestaurren izugarrizko ilusioa izaten zen, batzarra deitu eta ezin kabituz… Plazako balladoa jarri behar zela edo Eguberrietako Belena egin behar zela eta jendea pilaka biltzen zen. Orain jendea indibidualizatu egin da, bakoitzak berea, bere txokoa… besteentzat lan egiteko zera hori desagertu egin da eta ez dakit bueltan etorriko den»*.

### «Elkartea bera inoiz egon den egoerarik onenean dago»

Duela bi urte egin zen batzarrean inor ez zegoen prest presidente kargua hartzeko eta berak hartzea erabaki zuen. Aurten, egoera oraindik beltzago zegoen. Agirre segitzeko

## Karlos AGIRRE *Aurrerako presidentea*



ARGAZKIA: JAIONE ASTIBIA

**Zuzendaritza batzordea berritzeko arazoekin zabiltzate azken aldian. Zergatik gertatzen da hori?**
Duela bi urte ere hiru-lau deialdi egin eta inor ez zen agertzen. Azkenean, ni beti Aurrera inguruan ibili naiz, asko maite dut eta azkenean sartu nintzen, besteek segitzen bazuten. Ohartu gabe bezala egin zen junta berria. Aurten, juntan zeuden lau neskek ez zuten segitu nahi, eta lehenbiziko deialdian hiru bazkide bakarrik agertu ziren. Hirurehunetik hiru bakarrik, hori ikaragarria izan zen! Gero, azken deialdi bat egitea erabaki genuen, elkartea ixterainoko neurriak hartzeko prest geundela jakinaraziz komunikabideetan. Nonbait, horrek kezka sortu zuen eta pozgarria izan zen bigarren bilera horretara hainbeste jende biltzea. Komisio pila bat osatu dira, idazkaritzarako bat ofiziala eta bestea laguntzeko prest... Baina aldaketa hori gauza serio zegoela ikusi delako izan da.

**Hain konpromiso handia eskatzen al du bada batzordean sartzeak?**
Zuzendaritzan sartzeak badu bere konpromisoa, dudik ez da! 300 bazkideko elkartea da, komisio pila bat ditu: pilota, dantza, futbola, mendi taldea, orain zaldi taldea... Horrek badu bere lana, jendearekin harremanean egon behar duzu, sortzen diren gorabeherak moldatu, eguneroko martxa eraman... Badu bere konpromisoa, baina 300 lagunetik inor ez konprometitzea oso tristea zen.

**Hainbat ekitaldi antolatzen dituen Aurrerarik gabe, Leitzako bizimodua ere ezberdina izanen litzateke...**
Aurrera herriko sentimentu izugarria da. Orain ez dakit hori galtzen ari den... Kuriosoa da 300 bazkide dituela eta hilero bere kuota ordaintzen dutela, baina ez dute gehiago busti nahi. Baina hori ezin da horrela, ez bada jendea gauzetan sartzen eta herrietan mugimendurik ez bada, dena galduko dugu, ohiturak galdu ditugu, elkarbizitza galduko dugu... Lastima da hori!

*"Aurrera elkartea Leitzeko sentimendu izugarria da, baina igual galtzen ari da"*

prest zegoen, baina juntan lagun izan dituen lau neskek kargua utzi nahi zuten. Lehenbiziko deialdiak izan zuen harrera eskasa kontuan hartuta, beldur zeuden, baina bigarren deialdian 50 lagun bildu eta zuzendaritza batzordea ez ezik, beste batzordeak ere osatu ziren. Gainera, elkartea, lanean aritzeko egoerarik onenean dagoela uste du presidenteak: *«Orain bi urte batzordean sartu ginenean, elkartea oso gaizki zegoen, sentidu guzietan: erabileran, nahi zuenak nahi zuena eginez, desfasatua... urte oso txarra pasatu genuen dena zuzentzen. Egoitza ordaintzen bukatu dugu, lehen diru guzia kreditua ordaintzeko erabiltzen baitzen. Orain, hori ordainduta dago, jende berria sartu da, zaldi taldearen komisio berria sortu da, bazkide berriak egiten ari dira... lan egiteko aukera ederra dago! Hiru solairuko lokala daukagu, bere bulegoekin, ordenagailu, faxa, telefonoa... Goitik behera dena oso ongi antolatua dago, lan egiteko ez da problemarik, lan egiteko gogoa behar da!»*. Alde horretatik, esker oneko hitzak ditu Agirrek, azken urteetan berekin juntan aritu direnentzat: *«Urte hauetan lan ikaragarria egin dute, gauzak diren bezala. Azken batzarrean urduri xamar nengoen eta ez nituen eskertu, baina hemendik eskerrak eman nahi nizkieke»*.

### ARAZOA EZ ERREPIKATZEKO LANEAN HASIAK DIRA



ARGAZKIA: GAZTELUK UTZIA

**Aurrerako dantza taldeak urteak daramazki Santiburtzio bestak alaitzen.**

Harrigarria dirudi halako historia luzea eta 300 bazkide dituen elkarte batek bizirauteko horrelako arazoak izatea. Baina ez da Leitzako Aurreraren kasua bakarrik. Alferkeriagatik edo erosotasunarengatik, gutti dira borondatezko bezain beharrezko diren lan hauetan murgiltzen direnak. Horregatik, batzordeak berritzeko arazoak izaten dira inguruko elkarte gehienetan. Aurreraren kasuan, hemendik bi urtera hori gerta ez dadin lanean hasiko direla aipatu digu Karlos Agirre presidenteak: *«Jende gazte asko sartu da orain eta hurrengo bi urtetan segimendua izanen dela uste dut. Bi urte hauetan nere ondorengoa prestatzen saiatuko naiz. Urte asko daramazkigu honetan, nekea somatzen hasiak gara eta hemen ez gaude betiko, hori garbi! Horregatik, hemendik bi urteko erreleboa prestatzen hasi behar dugu. Jende berria sartzen denean, ideia berriak badaude»*.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada:** 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
**www.ttipi.info**
**info@ttipi.net**

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.
**Presidentea:** Pello Apezetxea.
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.
**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.
**Administrazioa:** Amaia Goia.
**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia; Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkartea...
**Imprimategia:** Gertu.
**Erakunde laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 30 € |
| Espainia | 30 € |
| Sara (edantegia-okindegia) | 40 € |
| Ipar Euskal Herria | 50 € |
| Europa | 50 € |
| Amerika | 108 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza | 25 € |

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**

**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du**



# • IRAKURLEAK MINTZO •

## Demokrazia Lesakarentzat!

Azken boldadan izandako zenbait gertaera eta hartu diren erabaki batzuen informazioaz jabeturik, egun bizi dugun egoera larriaren inguruan hausnarketa hau helarazi nahi diogu Lesakako herriari:

Azken urte hauetan, guk izandako esperientziak (nahiz eta herriak aukeratuak izan, egun Udala osatzen dutenek existituko ez bagina bezala jokatu nahi izan dute; zinegotzi karguak lapurtuz, informazioa ukatuz eta bilera deialdietatik kanpo utziaz) Lesakako udalaren funtzionamendua garbi ikustarazten lagundu digu. Hau da, gurekin mantentzen duten jarrera, beraien jardueraren adibidea bertzerik ez da, 11 lagunen (auniztan ezta horiek ere) interes pertsonal eta alderdikoien arabera guztiongan eragin zuzena duten erabaki garrantzitsuak hartzen dituzte. Egungo Udala osatzen dutenen kudeaketa urteetan ezagutu dugunaren jarraipena da; kudeaketa baztertzailea eta herritarron interesak bigarren mailan uzten dituena alegia.

Jarduera hauen erakusle etxebizitza politika dugu. Ditugun datuen arabera (Lesakako udalak izenpetzen duen aldizkaritik ateratakoak) 417 etxebizitza berri eraikitzea aurreikusten dute, eskaera egun 100 ingurukoa den bitartean. Aipatu, 417 etxebizitza horiez gain, bertze leku batzuetan eraikitzeko asmoa dagoela uste dugu, hala nola Zambra eta Iabaderoan. Herritarrak erabaki gunetatik kanpo gelditzen garen bitartean, gure etorkizuna eta ondorengoena banketxe eta prekaritateari lotuta egoteko bidean da.

Herrian egiten ari direna espekulazioaren adibide adierazgarria da.

Aurrekontuak, igerilekuak, kultur-etxea, Zambra, pilotalekua,... Gure herriarentzat hain garrantzitsuak diren gai ezberdin hauen inguruko informazioa ezkutatua zaigu. Ondoren, guztia erabakita dagoenean, hitzaldi eta aldizkarien bidez jakinaraziko digute egitasmoa nola gauzatuko duten. Espekulazioan, makroproiektuetan eta gardentasun ezan oinarritzen den politika hau eredu bakar bezala saldu nahi digute, herritarron iritzi eta beharrei jaramonik egin gabe jarraitzeko.

Egoeraren larritasuna egunak pasa ahala areagotuz doa eta azken hilabeteetan gertaturikoa da horren adibide: Herritarrek politika hau salatzeko egindako aldarrikapenak begibistatik kenduak izan dira udalaren aginduz, behin eta berriz adierazpen askatasuna urratzen da udalaren izenean, herriko sektore batzuekin mantentzen ari diren jokaera autoritarioa, alkatearen aginduz guardia zibila herriko etxean sartu izana (lehendabiziko aldia izan da) herritarren aurka oldartuz eta apartheid egoera gainditzeko udalak harturiko konpromisoak ez betetzea dira, bertzeak bertze egoera jasangaitz batera garamatenak.

Gazteei, tabernariei, eta txoznei igorritako azken mezuek, udal honen noraeza agerian uzten dute; Lesaka eta lesakarron etorkizuna zalantzan jartzen duten bitartean, ostatuei (herriko lanbide garrantzitsua) eta herri mugimenduari oztopoak bertzerik ez dizkiete jartzen.

Herria Aintzinera plataformatik, bizi dugun egoera honen erantzulea Juan Fermin Mitxelena buru duen udala dela garbi ikusten dugu. Hori dela eta, honetan guztietan erantzunkizun gorena dutenen dimisioak eskatu beharko litzateke. Dena den, datozen egunetan aztertuko dugu gaia.

Guzti honen sorburua, duela hiru urteko udal hauteskundeetan kokatzen dugu, lege haren (alderdien legea) helburua, bertzeak bertze udal ez-demokratikoak sortu eta ordurarte bertzelako herri eredu baten alde buru-belarri zebiltzanekin bukatzea zen, Ezker Abertzalearekin bukatzea, hain xuxen ere. Goian azaldu dizuegun bezala, hein haundi batean helburua lortu dutela erran behar da.

Horregatik, gure herriaren etorkizuna bermatua izan dadin, herritarren inplikazioa nahitaezkoa eta urgentziazkoa da.

Guk, Herria Aintzinerako plataformako kideok, duela hiru urte harturiko konpromisoari jarraituaz, bertze herri eredu baten aldeko lanean segituko dugula adierazi nahi dizuegu, horretarako gure esku dagoen guztia eginez. Zuei, herritarroi, gonbidapena luzatuta duzuela erratea bertzerik ez zaigu gelditzen.

Aski da! Herriaren etorkizuna herritar guztion esku! Demokrazia Lesakarentzat!

**Iban MAIA ORMAZABAL (Herria Aintzinera Plataforma)**

## Addio ikasturte kaxkar honi

Ekainaren 26an 2005/06 ikasturtea akittuko da eta Oronozko Eskola itxiko da (beno, erre usain madarikatu hori dela eta, udaran egunero aireztatu beharko da).

Urte gogorra izan da eta horren adierazle: eskola errea, konponketa afera korapilatsua, atzerapenak, bilerak, kezka, usaina, arriskua, osasuna zalantzan, erantzunkizun exkaxa, kezka, nekea, ardura.....

Baina, aldi berean, urte emankorra ere: elkartasuna, inplikazioa, ardura, parte hartzea, lana,...

Hori dela eta eskerrak eman diegu Oronoz Mugairiko Eskolako maixu-maistrei izandako pazientziagatik, guraso guztiei parte hartzeagatik eta bereziki Xabi Ballarenari egin duen guztiagatik.

Baikorrak gara eta hurrengo ikasturtea ziur lasaiagoa izango dela.

Oronoz, 2006.ko ekainaren 16a

**Oronoz Mugairiko Eskolako Kan Kan Guraso Elkartea**

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



GARA 2006-06-26

*«Irratiaren langintza profesionalizatzeko ezinbertzekoa izan da diru sarrerak handitzea. Administrazioak ematen digun laguntza edozein arrazoi dela eta bertan behera geratuko balitz, larri ibiliko ginateke. Alde horretatik, publizitateak babestu egiten gaitu, geuk sortutako diru sarrera delako. Bazkide batzuk ere baditugu, 120 bat. Kanpaina handiagoa egin beharko genukeela iruditzen zait, 300-400 izatera irits gaitezkeen ikusteko».*

**Josetxo APEZETXEA**
Xorroxineko esataria
GARA 2006-06-26

*«Euskara jatorra, komunikatiboa eta zuzena egiten ahalegindu naiz, hiru oinarriak horiek direla uste dudalako. Horregatik ez dut, adibidez "esan" erraten, hori nire ahoan arrotza delako eta, ondorioz, jatorra izango ez litzatekeelako. Hau da, batua erabili behar da, baina norberaren euskalkiaren ukitua emanda, hizkuntza jatorra izan dadin. Uste dut hori dela falta den erronka».*

**Estitxu FERNANDEZ**
Lesakako aurkezlea
AIZU 2006ko uda

## • 11 GALDERA LABUR •

**Amaiurko Amabirjin bestak edo Elizondoko Santioak?**
Bestan nonahi moldatzen saiatzen naiz.

**Baztandarren Biltzarrean, Amaiurko organ edo Elizondoko koadrilakoan izanen zara?**
Emaztea Amaiurko organ eta ni haurrekin.

**Aita izatearekin, juerga egiteko gogoa apaldu zaizu?**
Besta, txirrindolan ibiltzea bezala da, behin ikasita...

**Errugbian aritzeko, indarra edo burua gehiago erabili behar da?**
Buruarekin indarra egin beharra da batzutan.

**Melearen erdian sarturik... denak balio du?**
Epaileak ikusten ez badu...

**Euskal Herriko herrialdetako selekzioak izan dira Elizondon... Oraindik Iparraldekoak gehiago dira errugbian?**
Errugbiak iparraldean, hemen futbolak duena baino indar handiagoa dauka, beraz...

**Futbola, pilota... etengabe telebistan. Errugbia baztertua dago komunikabideetan?**
Hegoaldean bai, normala da halere, hasteko jendeak ez du ulertzen.

**Errugbi partidaren ondotik hirugarren denbora... Oraindik mantentzen da ohitura?**
Ohitura onak mantendu behar omen dira.

**Zeelanda Berriko errugbi taldeak partida hasi aitzin guda-dantza egiten du arerioak beldurtzeko... Baztangoek ez al duzue pentsatu mutildantza dantzatzea?**
Taldean ez dugu txistularirik,etorkizunerako ideia ona litzateke.

**Baztan Rugby taldea ikusiko dugu noizbait Ohorezko mailan?**
Orai gaudenak aitzen garen bitartean, soriken ez.

**Aukeran, oporrak Karibean edo Sei Nazioetako partidaren bat ikusi?**
Bakantzak normalki amaiurtarrak dion tokian dira, baina Sei Nazioak aukera ederra litzateke.



**Mariano IRIBARREN**
*Baztango errugbilaria*













ERREPIDEAK

# Errepide zati arriskutsuak moldatzeko plana aurkeztu da

## Eskualdean, N-121A eta N-121B errepideetan moldaketak eginen dira

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak, errepide sareko hamasei zati arriskutsu moldatzeko zazpigarren plana aurkeztu du, 2006 eta 2008 urteen artean egin beharrekoa. Istripu aunitz izaten diren zortzi zati eta potentzialki arriskutsuak diren bertze zortzi ezabatu edo moldatu nahi dira Nafarroa osoan, 5.048.436 euroko inbertsioarekin.



ARTXIBOKOA

Istripua Villanuevako bihurgunean, Bera eta Endarlatsa artean.

Istripuak pilatzen diren errepide zatiei dagokienez, horietatik bi eskualdean daude. Nola ez, Iruñetik Behobiara doan N-121A errepidean daude, Bera eta Endarlatsa artean (68,1 -69,8 km) eta Sunbilla eta Igantzi artean (57,2 -58,2 km). Bi zati hauetan bihurgune itxiak daude eta kontrako norabideko karrilera erraz joaten dira ibilgailuak. 2007-2009 urteen artean egin beharreko hobekuntza lanekin arazoa moldatzea espero da. Bien bitartean, seinalizazio bertikala eta balizazioa hobetu da eta aitzintzeko lekuak mugatu egin dira. Potentzialki arriskutsuak diren zatiei dagokienez, bi zati berri somatu dira eskualdean, Iruñetik Dantxarinea aldera doan N-121B errepidean, Iruritan eta Azpilkuetan. Hauetan, seinalizazio eta balizazio lanak eginen dira aurten.

### ISTRIPU KOPURUA MURRIZTEN ARI DA

Nafarroako Gobernuak emandako datuen arabera, zati arriskutsuak moldatzeko plana egiten hasi zirenetik, istripu kopurua murrizten ari da. Honela, heriotza eragin duten istripuen kopurua %30 jautsi da 1998tik 2005era (515etik 360ra) eta hildakoen kopurua ere %21,7 jautsi da. Kontuan hartu behar da banaz bertzeko trafiko intentsitatea %27,6 igo dela urte tarte horretan. Halere, joan den urtean 76 hildako izan ziren Nafarroako errepideetan, 2004an baino 14 gehiago. Aurten, aldiz, ekainaren 26a arte 21 lagun hil dira gure errepideetan, iaz tenore horretan baino 10 guttiago.

AZPIEGITURAK

# Baztan eta Bidasoaldean gasa sartzeko hitzarmena sinatu da

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak eta Gas Natural enpresak Baztan-Bidasoa aldean gasa sartzeko elkarlan hitzarmena sinatu zuten ekainaren 30ean. Industria eta Teknologia, Komertzio eta Lan Departamentuak Iruñean duen egoitzan egin zen sinadura ekitaldia eta bertan izan ziren Jose Javier Armendariz Quel, departamentu horretako kontseilaria; Antonio Peris Mingot, Gas Navarrako garraio eta banaketarako zuzendaria; Enrique Diaz Moreno, Nafarroako Gobernuko Industria eta Komertzio zuzendari nagusia eta Jose Maria Gil Aizpuru, Gas Navarrako zuzendari nagusia.

Baztan-Bidasoan gasifikazioa garatzearekin 6.000 lagun baino gehiagori zerbitzua eskainiko zaio, Navarra Horizonte 2010 Energia Planaren helburuekin bat eginez.











BERA

# Bi proiektuk lortu dute Musika argitalpenerako dirulaguntza

## Bertze aldetik, herriaren izen ofizial eta bakarra Bera izatea eskatu du Aralar udal taldeak

Amaia eta Ainhoa

Ekainaren 2an bukatzen zen Berako musika argitapenerako dirulaguntzak jasotzeko proiektuak aurkezteko epea eta hiru proiektu aurkeztu ziren. Aurkeztutako lanen kalitatea eta interes kulturala aztertu ondoren, Kultur Batzordeko epaimahaiak bi lanei dirulaguntza ematea erabaki du. Lehendabizikoa, Joseba Irazokik aurkeztutakoa da, "Akordeoi orkestra eta guitarra Do tonuan" izenekoa. Disko honetan Berako musika ikasleak eta Joseba Irazoki berak parte hartuko dute. Mikel Errazkin teknikari lanetan ariko da eta diseinua Maddi Irazokirena izanen da. 1.015 euroko dirulaguntza lortu du lan honek. Bigarren proiektua, Ertz Arte Gunearen "Iratze eta harri" da. Iratze eta harri piezak ingurune naturaletako ezaugarri eta sentsazio zenbaiten inguruan lan egiten du soka instrumentuetan oinarrituz. Proiektu honetan Xabier Erkizia, Maite Arroitajauregi, Iñigo Telletxea eta Iñigo Ugarteburu dira musikariak. Teknikari lanetan Aitor Garcia (Maikel) arituko da eta diseinua Marta Font-ena izanen da. 232 euro lortu ditu proposamen honek. "Ertz bilduma: Ahantzi baino lehen" proiektua, aurkeztutako finantziazio proposamenaren arabera diru irabaziak dituelako diruz ez laguntzea erabaki da.

### Bera, herriaren izen ofizial eta bakarra

Ekainaren 21eko udal batzarrean, Aralarrek Nafarroako Aldizkari Ofizialetik derrigortzen ari diren "Bera/Vera de Bidasoa" erabili beharrean, "Bera" bakarrik erabiltzea eskatu zuen. Altsasu eta Berak ezik, gainerako herriek izen bakarra daukate eta Aralarrek hau aldatu nahi du. Mozio hau bozkatzeko orduan, EA eta Herrialde abstenitu ziren. Beraz, Aralarren mozioa onartu da. Horrela, 1989an Udalak onetsitako "Bera" izendapena bakarra eta ofiziala berretsiko da. Nafarroako Gobernuari jarrera inposatzaile eta debekuzkoa baztertzea eskatzen zaio, udalak erabakitakoa errespetatuz eta "Bera" izena izen ofizial bakarra izan dadin beharrezkoak diren tramiteak hasiko dira.

### Ekoberako zenbaki sarituak

Hauek izan dira ekainaren 24ko II. Ekobera azokan saritutako zebakiak: 531 zenbakiak produktu ekologiko sorta bat lortu du, 1056 zenbakiak landetxe batean bi pertsonendako asteburuko egonaldia eta 549 zenbakiak eskualdeko jatetxe batean bi pertsonendako afaria. Boletoak lehenagotik komertzio ezberdinetan edo egunean berean azokako postu batetan salgai zeuden.

### Lizuniagako ehizalekua

2006 ehizi denboraldirako aldaketak proposatu nahi dituzten Ehizi eta Arrantza Elkarteko bazkideek, uztailaren 14, 21 eta 28an elkarteak daukan egoitzara joan eta beraien proposamenak egiteko aukera daukate. Ordutegia 20:00etatik 21:00etara izanen da.



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

**Gure Txokoaren 75. urteurreneko ospakizun berezia**

**1931garren urtean Gure Txokoa kultur eta kirol elkartea sortu zen. Aurten 75 urte bete dituela eta, uztailaren 1ean, zuzendaritza batzordeak, ospakizun eguna antolatu zuen. Goizean haur eta gazteentzako ekitaldiak prestatu zituzten, tartean krosa, jokoak edo nesken arteko futbol partida. Denbora berean lamotenean, haurrentzako joko batzuk antolatu zituzten. Eguerdian, bizi den 1931ko sortzaile bakarra, Antonio Lasarte omendu zuten. Aurreskua dantzatu zioten eta, argazkian ageri den bezala, oroigarria eman zion gaur egun elkarteko presidente ordea den Kristina Lasarte bilobak. Ondotik barnera sartu ziren, urte guzi horietan ateratako argazkien erakusketa ikusteko. Eguna borobiltzeko zikiro jatean 250 lagun bildu ziren. Tartean, duela 89 urte Endarlatsan sortu eta Biriatun bizi den Jose Martin Zugarramurdi zegoen. Gure Txokoak 1936an antolatutako txirrindularitza proba batean irabazitako zintarekin etorri zen.**

ANSONEA
Ostatua-Jatetxea
Egunerokо menua eta asteburutan menu bereziak
Terraza estalia eta Ziberkafea
Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

SAROBE okindegia
SANDERS pentsuak
Eztegara, 41 - Tel: 948 630 899 - BERA

BAR BOTXO OSTATUA
✆ 948630052-Zalain-BERA

LESAKA

# Eskualdeko artzain «amerikanoak» herrian bilduko dira urriaren 22an

## Bertzalde, Banartako bestak ospatuko dira Xantio egunez

Aitor AROTZENA

Bortziriak, Baztan eta Malerrekatik Amerikara joan ziren artzainen eguna antolatu nahi dute udazkenean Lesakan. Proiektu hori prentsaurrean aurkeztu zuten uztailaren 23an Herriko Etxean. Laura Iantzi zinegotzia, Jesus Goldaraz Doneztebeko apeza, Artzain Mundua Fundazioko Miren Elgarresta eta Lesakako, Sunbillako eta Baztango artzain batzuk bildu ziren ekitaldian. Eguna hurbiltzen denean ekitaldien xehetasun gehiago emanen badute ere, ospakizunerako ahal bezain bertze jende eta artzain biltzeko deialdia dagoeneko luzatu nahi izan zuten. Orain arte, herrika bildu izan dira artzainak, baina orain eskualde osokoak bildu nahi dituzte. Bertan parte hartu nahi duten artzain guziek beraien eskualdeko arduradunekin harremanean jarri beharko dute: Baztan eta Xaretan, Florentino Goñi (948 592138); Bortzirietan, Josetxo Iantzi (686 759341); Sunbilla eta Malerrekan, Jesus Maria Jorajuria (948 450433), Bertizaranan, Fermin Zelaieta (609 211747) eta Ituren, Zubieta eta Labaienen Xanti Hualde (948 450606).

### Banartako bestak

Sanferminak akautu berriak badira ere, ezin erran besta giroa gurean itzaliko denik. Azkeneko urteotako ohiturari eutsiz, Xantio egunez, uztailaren 25ean, Banartako bestak ospatuko dira Linddurrenborda sagardotegi inguruan. 12etan txupinazoa botako da eta ondotik toka txapelketa jokatuko da. Bazkaria eginen da gero, trikitilari eta bertsolariekin. Bazkalondoan txinga txapelketa jokatuko da eta berriz ere trikitilariek giroa jarriko dute. Bazkarira joateko Linddurrenbordako 948 637212 telefonoan eman behar da izena.



ARGAZKIA: JUANJO GUERRERO

**161 mendizale Lesakako Itzulian**

Bezperako euriak mendizaleen animoak goibeldu zituen nonbait, eta 161 lagunek bakarrik parte hartu zuten ekainaren 25ean Beti Gaztek antolatutako VIII. Mendi Itzulian. Argazkian, Zalain-Zokoko kontrol-gunean ageri dira.



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

**Maddi Uranga eta Ioar Oteiza txapeldun**

Sanferminen aitzineko asteburuko ohiko ekitaldia bihurtu da Baztan-Malerreka-Bidasoako gazteen trikitixa txapelketa. Aurtengoan, gaztetxoen mailan txapela herrian gelditu zen, Maddi Uranga eta Ioar Oteizaren buruetan.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

**Nuarbe 640 kiloko Euskadiko txapeldun**

Uztailaren 2an Landazelaian jokatu zen Euskadiko lur gaineko sokatira txapelketako azken saioa 640 kiloko kategorian. Nuarbe txapeldun izan zen eta Beñardo Iantzi herritarra Aresoko taldearekin tiran ikusteko aukera izan zen.









ETXALAR

# Itsaso eta Irune Elizagoien txapeldun Bidasoaldeko IX. trikitixa txapelketan

## Laugarren txapela lortu zuten Beheko Etxeko ahizpek Lesakan



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

**Itsaso eta Irune Elizagoien, beraien laugarren txapela irabazi ondotik.**

**Joseba eta Nerea**

Duela bi astehondar, San Fermin bezperan, Lesakan jokatu zen trikitixa txapelketan ira- [illegible] Itsaso eta Irune Elizagoien ahizpak, bigarren urtez segidan. Euren kategoriko txapela lortu zuten bertze 7 bikoteri ai[illegible]n hartuz. Ez da ira[illegible]zi duten lehenbiziko [illegible]apela, joan den urte[illegible] ere txapelketa bere[illegible] irabazle izan baitzi[illegible]n. Denera lau txapel [illegible]tuzte dagoeneko. Ho[illegible]tako bi herrian bertan [illegible]baziak, Etxalarko tri[illegible]ixa txapelketan, eta bertze bi Lesakan. Ez da marka ttikia neska hauena. Datozen hilabeteetan bertze hainbat jaialditan parte hartzekoak dira eta Lesakan lortutako sari honek animoak eta indarrak emateko balioko die, dudarik gabe. Zorionak!

### Trikitixa Jaialdia

Musika kontuekin segituz, trikitixa doinuek hartu zuten Etxalar joan den ekainaren 25ean. Plaza bazterrera hurbildu zirenek trikitixa jaialdi politaz gozatzeko aukera izan zuten.

Lesakako Trikitixa Eskolak antolaturik, bi ordu inguruko erakustaldi koloretsua eskaini zuten eskualde osotik etorritako 80 bat soinujolek, eta tartean herriko trikitilariek. Betiko doinuak, perkusioa, abesti ezagunak, fandango eta arin-arinak.... denetik aditu ahal izan zen. Herriko trikitilari gazteek maila polita erakutsi zuten eta soinu ttikia eta panderoa astintzen artistak direla garbi utzi zuten, gainerako musikari guztien tartean.



PERTSONAIA

Xabier ARIZTEGI

## [illegible]uedian aizkoran

[illegible]xetik zientoka kilometrora, Sue[illegible]an, egon zen herriko aizkolari [illegible]ztea joan den ekain honda[illegible]ean. *«Ordurarte Tuteran baino [illegible]runago ez nintzen inon ego[illegible]»* aitortu digu Santxinek eta sinetsi behar zaio beraz, herrialde eskandinabiarrera joateko gonbitea sorpresa handiz hartu zuela erraten duenean. Bertze bi lagunekin batera gurutzatu zuen itsasoa, Mikel Urmeneta Kukuxumuxuko marrazkilariarekin eta Edurne Arrizibita komunikazio departamentukoarekin. Joan den urteko San Ferminetan Kukuxumuxuren eskutik "Urteko giriari" saria irabazi zuen suediarrak gonbidatuta egon ziren han. *«Hagitz esperietzia polita izan zen. Suediarrak harrituak gelditu ziren ni egur bat mozten ikustean, inoiz ez baitzuten aizkolaririk ikusi»* Suediako Storvik herrian egon zen Santxin, Stokolmotik hurbil, eta lau kanaerdiko moztu zituen jaialdi berezi batean. San Joan bestak pasatzeko modu polita harrautu zuen Santxinek Eskandinabia aldean. *«Gustura hartuko nuke berriz horrelako esperientzia bat»* erraten du orain irri artean.












IGANTZI

# Nafarroako Mendi Bizikleta Jautsiera herrian erabakiko da uztailaren 15ean

## Fraingo kaxkotik Baratzarrea bitarteko ibilbidea eginen dute txirrindulariek

**ttipi-ttapa**

Nafarroako Mendi Bizikleta Jautsiera txapelketa jokatuko da herrian larunbat honetan, uztailaren 15ean, Biltoki elkarteak antolatuta. Aitzineko urteetan ere egin da proba hau Fraingo kaxkotik Baratzarrea bitartean, eta duela bi urte Euskal Herriko txapelketa ere erabaki zen ibilbide berarekin. Xabi Telletxea izanen da herriko ordezkaria proba honetan. Duela bi urte Euskal Herriko eta Nafarroako txapeldun izan zen elite mailan, eta aurten ere hori errepikatzen saiatuko da. Joan den urtean ere Nafarroako txapeldun izan zen elite mailan, nahiz eta herriko proba Iñigo Yancik irabazi zuen. Beratarra izan zen proba hiru minutu baino guttiagoan egin zuen bakarra. Aurten ere, jautsierako abiaduraren ondotik, txirrindularien salto ikusgarriekin gozatzeko aukera izanen da aparkalekuan.





Argazkia: Mila Iraolak utzia

***Unai Telletxea txapeldun Tolosaldeko Hitza txapelketan eta Doneztebeko Joxe Ezkurra Memorialean***

**Unai Telletxea herriko pilotari gaztetxoak bi txapel ekarri ditu etxera uztaileko lehen asteburuan. Tolosaldeko Hitza txapelketan, benjamin mailako txapeldun suertatu zen Beñat Mitxelena beratarrarekin bikote eginez. Final gogorra izan zuten eta ordubete baino gehiagoko lehiaren ondotik, 16-14 irabazi zieten Amezketako Altuna eta Sagastumeri. Doneztebeko Joxe Ezkurra memorialean, Joseba Bertiz igantziarrarekin batera, 18-5 irabazi zieten Donibaneko Laso eta Bikondori.**

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA
- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com
LESAKA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 404
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

Lizun GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta
Petxenekoborda · SUNBILLA · Tel: 948 450 862

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

## ARANTZA

# Arantza Rock musika jaialdi haundia abuztuaren 19an eginen da aurten

### Larunbat honetan Oilargatako besta antolatu du Girizia txabolak

**Nerea ALTZURI**

Uztailaren erdira ailegatu gara. Aintzineko alean jakinarazi bezala, heldu den astelehenetik aitzinera, uztailaren 17an udaleku irekien denboraldia abiatuko da herrian Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen ekimenez. Hameka haurrek izena eman dute eta Maitane Gartzia beratarra begirale lanetan ariko da gaztetxoekin. Abuztuaren 11ra bitarte ongi pasatzeko aukera izanen dute, euskaraz jostatuz eta herriari buruzko kontuak ikasiz. Astearte eta ortzegun arratsaldero arituko dira, 17:00etatik 20:00etara, guzira zortzi saio eginez. Kirola, eskulanak, ateraldiak... denetarik eginen dituzte aurten ere.






WWW.SORKUN.ORG

**Arantza Rock jaialdira etorriko diren taldeen artean, Sorkun izanen da. Ahots ozen eta indartsuko neska honek eta bere taldeak, zuzeneko indartsuak eskaintzen ditu. Beraiekin batera, Himen, Buitraker eta The Solanos taldeak izanen dira.**

### *Oilargatan besta*

Larunbat honetan sekulako besta prestatu duten Oilargata mendian. Bertan dagoen Girizia txabolako kideek antolatuta, egitarau polita izanen dute, eguerdian hasita. Lehenik eta behin herritarren arteko herri kirol saioa izanen da; ondoren bertso poteoa eginen dute Oilargatan barna Sebastian Lizaso eta Aitor Mendiluze bertsolariekin. Eguerdiko bi eta erdietan bertso bazkariarekin jarraituko dute. Bazkalondo animatua izanen da dudarik gabe. Ehun eta bortz bazkaltiarrek izena eman dute eta giro ederra bermatua dago Oilargatan, 660 metrotara dagoen mendi gainan. Ea pixkanaka herriko auzo eta mendietako bestak izaten ditugun! Girizia txabolako sozioen gogoa eta ilusioa eskertzekoa da Oilargatako bestak ospatzeko!

### *Gazte Asanbladako berriak*

Arantza Rock 2006 abuztuaren 19an eginen da. Aurten Sorkun, Himen (beratarrak), Buitraker eta The Solanos taldeek emanaldia eskainiko dute. Urtero bezala kamisetak ere atera ditu Gazte Asanbladak egun hau iragarriz. Urte mordoxka pasa dira 1995az geroztik rock jaialdia antolatzen. Hasierako edizioa Aterpearen ekimenez izan zen eta hurrengo urtetik Gazte Asanbladak ardura hartu zuen. Hasierako lau edizioak Aterpeko aparkalekuan izan ziren eta ondorengo urteetan frontoian egin da jaialdia. 1998an eta 2003an ez bertze gainerako urteetan Rock Kontzertuak egin dira urtez urte.

Bertzalde, Muxikoak iparraldeko dantzen ikastaroa antolatu du Gazte Asanbladak.









SUNBILLA

# Urte bukaerarako plaza berriko lanak hasiak izanen dira

Proiektua jendaurrean aurkeztu da, alegazioak egin ahal izateko

Jaione OTXANDORENA

Gure herrian plaza berria egiteko ideia duela urte batzuetakoa bada ere joan den urtean berrartu zen proiektua. Orain dela aste pare bat udal agintariek plaza berriaren planoak atera zituzten udaletxeko atearen kanpokaldera herritar guztiek ikus zitzaten. Planoekin batera, proposamenak egiteko orria ere atera zuten eta dagoeneko badaude herritarren proposamen batzuk udaletxean aurkeztuta. Proiektuan azaltzen den bezala, plaza berria bi zatitan banatua egonen da. Zubi zahar aldera haurrentzat parkea egonen da eta zubi berri aldera kioskoa. Ramon Latasaren eskultura ere plazan jarriko da eta horretarako lanean ari da herritar talde bat. Azken baimenak lortzeko gestioak egiten ari da udaletxea.

Proiektua gauzatzeko aurrekontu zehatzik ez dago oraindik, beraz dena ongi lotuta egon arte ez da erabakiko nork eginen dituen plazaren lanak. Gogoratu proiektu honi buruzko informazioa nahi duen guztiak, udaletxera jo dezakeela edozer gauza galdetzeko eta nahi izanez gero, proposamenak egiteko aukera ere bada abuztuaren 4a bitarte.




UTZITAKO ARGAZKIA

**Zubi zahar aldera haurrentzat parkea egonen da eta zubi berri aldera, berriz, kioskoa.**

## Igeriketa ikastaroetan iaz baino jende guttiago hasi da

J.O.

Joan den uztailaren 1ean eman zitzaien hasiera aurtengo igeriketa ikastaroei. Joan den urtean baino jende guttiago ari bada ere, haur eta gaztetxoen artean 24 pertsonek eman dute izena. Gaztetxo hauek goizetan izanen dituzte ikastaroak, hiruz-palau taldetan banatuak. Helduetan berriz, 12 bat lagunek eman dute izena eta hauek ilunabarretan izanen dute ikastaroa. Aritz Arriola da talde guztien irakasle.



ARTXIBOKOA

**Ttikitatik igerian.**

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONOZ - MUGAIRI

Baztango
promoción inmobiliaria
Inmobiliaria baterako komertziala behar da.
Bortziriak, Bertizarana eta Baztanen.
Baldintza ekonomiko onak.
Tel: 948 630 552 · info@baztango.com

Ginko
M. Karmele Tolosa

31760 Etxalar (Nafarroa)
Telefonoak:
617 350 025 - 667 694 067


ZUBIETAKO TAXIA
8 BIDAIARIENDAKO TOKIAREKIN
PERTSONA BAKARRAK ERE GARRAIATZEN DITU
PLATAFORMA ELEKTRIKOZ EGOKITUTA
BI GURPIL AULKIRAKO ETA 5 LAGUNENDAKO
676 553 656 · 948 451 953
TAXI guztiak bezala TARIFA BERDINAK


Pitti
eskabazioak
Tel: 616 513 491

Mendialdea etxea, 34 · ZUBIETA

MALERREKA

# Kirol Merituaren Urrezko Domina jaso du Mikel Mindegia aizkolariak

35 urtez egindako lana saritu dio Nafarroako Gobernuak

Jaione OTXANDORENA

Mikel Mindegia Labaien, Ezkurran sortu eta Zubietan bizi den aizkolari haundiak bertze sari bat eskuratu du berriki. Oraingoan, Kirol Merituaren Urrezko Domina eskuratu du, Nafarroako Gobernuaren eskutik. Mindegia 35 urte luzez aritu da eta oraindik ari da aizkoran, 57 urterekin. Nafarroako txapelketa urtero ofizialki egiten hasi zenetik, zazpi aldiz irabazia du txapela, azkena iaz, 56 urterekin. Baina berak dioenez, «txapelketa ofiziala izan aurretik ere jokatzen ziren txapelketak eta horietan ere txapeldun suertatu naiz batzutan». Euskal Herriko txapeldun ere hainbatetan izan da Mindegia. Berak egindako desafio aunitz ere aski famatuak izan dira.



ARTXIBOKOA

**Aizkorari eskaini dion lana sarituz Urrezko Domina eskuratu du Mindegiak.**

Baina Ezkurrako aizkolariaren lana ez da soilik Nafarroa edo Euskal Herrira mugatzen. Atzerriko aizkolariekin ere aritu da desafioan, Australian, Zeelanda Berria edo Ipar Amerikako aizkolariekin ere aritu baita.

## Ander Erasun iturendarra laugarren aizkolari gazteen txapelketan

Uztailaren 2an, Ozaetan Euskadiko aizkolari gazteen finala jokatu ze. Sei aizkolariek parte hartu behar zuten, Julen Kañamares, Ander Erasun (Ituren), Oihan Larretxea (Bera), Garikoitz Larretxea (Arraioz) eta Alejandro Mindegia (Beintza-Labaien) Nafarroatik eta Aitzol Atutxa Bizkaiatik eta Aratz Mugerza Gipuzkoatik. Garikoitz Larretxeak ez zuen parte hartzerik izan.

Atutxa izan zen txapeldun eta Mugertza III.a azpitxapeldun. Hirugarren posturako izan zen lehiarik handiena eta azkenean Kañamaresentzat III.arentzat izan zen. Oihan Larretxea beratarra laugarren izan zen eta Alejandro Mindegia bosgarren.

Casa Cambra
1951tik lentzeria-etxea
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

albornozak • mantelak • edredoi nordikoak
edredoi-azal nordikoak • ohe estalkiak
maindireak • kuxinak • toailak
UDAKO ESKAINTZAK





MALERREKA

# 642.115 euroko aurrekontua onartu du Urrozko Udalak

## Inbertsioetan joanen da dirutzarik handiena

ttipi-ttapa

Urrozko Udalak 642.115,52 euroko diru sarrera eta irteerak izanen ditu aurten, berriki onartutako udal aurrekontuaren arabera.

Gasturik handiena inbertsioetan joanen da, 471.754,82 euro erabiliko baitira lan ezberdinetan. Errate baterako, abeltzaintza azpiegituretarako bideak moldatzeko 125.000 euro gastatuko dira. Hirurteko Azpiegitura Planaren barrenean, argindar sarea moldatu eta lur azpian sartzen 91.295,25 euro erabiliko dira. Iturritik depositora doan ur sarearen zati bat moldatzeko 79.042,41 euro erabiliko dira. Leurtzako urtegian moldaketa lanak egiteko 99.964,75 euro gastatuko dira eta Leurtzako urtegi ingurua ezinduei egokitzeko 39.500 euro erabiliko dira. Mendiko lanetan, azkenik, 15.309,41 euro gastatuko dira. Bertze gastuei dagokienez, ondasun eta zerbitzuetan 75.000 euro pasatuak joanen dira eta langilegoan 42.834 euro.

Diru-sarrera nagusia dirulaguntzak izanen dira, 510.671 euro espero baitira.



ARTXIBOKOA

**Aurten egin beharreko inbertsioen artean, argindar sarea moldatu eta lur azpian sartzen 90.000 euro baino gehiago joanen dira. Hirurteko Azpiegitura Planaren barrenean sartua dago proiektu hau.**

Pinturas Pikabea Molinero

PINTURAK

Esmalteak · Bernizak · Lasurea urpintura · Margo klase guziak

Profesionalentzat prezio berezia

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea

Zalain auzoa, Aceralia fabrikaren parean · BERA
TEL: 948 630 240 · MUG: 627 622 333

# Uso ehiza postuak enkantean aterako ditu Donamariako Udalak

## Abuztuaren 5ean

ttipi-ttapa

Donamariako Udalak, datozen lau urtetarako uso ehiza postuen aprobetxamendua enkante publikora atera du.

Honela, Golbai inguruko hameka postuen hasierako prezioa 30.000 eurokoa izanen da; Uztalakorta inguruko zortzi postuen hasierako prezioa 12.000 eurokoa; Bidakorri inguruko 14 postuen hasierako prezioa 9.000 eurokoa; Labeagako zazpi postuen hasierako prezioa 3.000 eurokoa; Bidasosta inguruko hamar postuen hasierako prezioa 4.250 eurokoa; Txaruta inguruko zazpi postuen hasierako prezioa 6.000 eurokoa: Ubedo inguruko sei postuen hasierako prezioa 1.500 eurokoa, eta Argibel inguruko zortzi postuen hasierako prezioa, 2.000 eurokoa. Enkantea abuztuaren 5ean eginen da ahoz Donamariako Herriko Etxean, eguerdiko 12:00etan. Enkantean parte hartu nahi dutenek, hasierako prezioaren %5a aitzinetik jarri beharko dute fidantza gisara. Enkanteko tantu bakoitza 30 eurokoa izanen da.

DONEZTEBE

# Udako Kirol Eskola antolatu du aurten ere Erreka elkarteak

## Abuztuaren 4a arte arituko dira, astean hiru egunez

ttipi-ttapa

Erreka Kirol Elkarteak, Doneztebeko Udalaren laguntzaz Udako Kirol Eskola antolatu du. Eskualdeko haur eta gazte aunitzek parte hartu dute eskola honetan azkeneko urteetan. Aurtengoan seigarren edizioa egiten ari da. Udako Kirol Eskolan kirol ezberdinak lantzen dira eta uda pasatzeko bertze modu bat eskaintzea du helburu. Aurten bertze urtetan baino aste batzuk lehenago hasi da. Uztailaren 7tik abuztuaren 4ra, astelehen, asteazken eta ortziraletan egiten dute eskolako frontoian eta udal kiroldegian. Talde bat 11:00etatik 12:00etara aritzen da eta bertzea 12:00etatik 13:00etara. Izen ematea Kirol Eskola hasten zen egun berean egin behar zen. Errekako bazkideek 33 euro ordaindu behar zuten eta oraindik bazkide ez direnek 36 euro.



ARGAZKIA: MAITE BIDARTE

*San Pedro bestak umore ederrean joan dira*

**Koteto Ezkurrak bezperan botatako txupinazoarekin abiatu eta uztailaren 2ko Gaixoa Ni bitarte, giro ederra izan da aurtengo bestetan. San Pedro egunean, «Trapatan» dantzatu zuten dantzariek. Gazteen Egunean (argazkian), ohiko ginkana eta gazte jokoak egin ziren eta gauean kontzertu bikaina izan zen Santa Luzia plazan. Ederra!**





ARGAZKIAK: TELLETXEA

*Rafa Maritxalarek irabazi zuen XXVIII. Herri Krosa*

**Hiru Herri taldeko Rafa Maritxalar lesakarrak irabazi zuen ekainaren 25ean Doneztebeko XXVIII. Herri Lasterketa. Bigarren postua, taldekide duen Fernando Etxegarai beratarrak eskuratu zuen eta hirugarren postua, beteranoen mailan aritu zen Ardoi taldeko Patxi Orofinok. Beteranoen podiuma beraz, Patxi Orofinok, Larraungo Ander Arraztiok eta Hiru Herri taldeko Angel Garate iruritarrak osatu zuten. Emakumeen artean, Goierri taldeko Rosa Talavera izan zen bizkorrena; Errekako Ana Zelaieta doneztebarrak lan bikaina egin zuen eta bigarren izan zen eta Beste Iruñako Maika Ariztegi iturendarrak hirugarren postua eskuratu zuen. Rosa Talaverak beterano mailako lehen postua ere eskuratu zuen, Burlatako Rosa Orofino eta Doneztebeko Marga Erdozainen aitzinetik. Kategoria ttikiagoetan, kadete mailan Maitane Larretxea doneztebarra izan zen partehartzaile bakarra. Infantiletan, Jon Sansiñena irundarra eta Doneztebeko Ane Mutuberria izan ziren garaileak; Alebinetan, Doneztebeko Ibon Leiza eta Berako Ane Eltzaurdia. Benjaminetan, Mikel Retegi eta Elena Zabala doneztebarrek irabazi zuten. Aurrebenjaminetan, Donamariako Beñat Lazkano eta Doneztebeko Amaia Jorajuria izan ziren bizkorrenak. 2003an eta 2004an sortutakoen maila berezian ere 16 neska-mutikok hartu zuten parte, etorkizuna badela erakutsiz.**

ARANO

# Santiago bestak uztailaren 22tik 26ra ospatuko dira

San Joakin eta Santa Ana egunean jubilatuen eguna ere eginen da


Artxibokoa

Aurtengoan ere giro ederra izngo da herriko festetan.

### Larunbata 22

**11:00etan :** Udaletxetik jaiei hasiera emango dien suziria botako da.

**12:00etan:** Herriko produktuen dastaketa: Gazta eta sagardoa. Lehenengo tortilla txapelketa egingo da herriko jendearen artean.

**17:30ean:** Herriko pelota txapelketako finalak: Mutilak eta neskak, eskuz eta palaz.

**20:30ean:** Meza.

**22:00etan:** Ohiko ohilasko jatea. Ondoren Etxabe anaiak goizalderarte.

### Igandea 23
UMEEN EGUNA

**10:00etan:** Diana dultzainarekin.

**11:00etan:** Meza.

**12:00etan:** Alebinen pelota partiduak: Elorza-Ansa eta Arozena-Zugarramurdi. **Ondoren** BERTSO PELOTA: Pelotariak: Mikel Goñi II eta Iñaki Esnal. Bertsolariak: Unai Agirre, Haritz Zerain eta Xabier Legarreta.

**18:00etan:** Gorritiren Show-a . Eta ondoren txokolatada.

**20:00etan:** Toka txapelketa. Kalejira Izer eta Alabierrekin.

### Astelehena 14

**22:30ean:** Mus txapelketa azkarra San Roke elkartean.

### Asteartea 25
SANTIAGO EGUNA

**10:00etan:** Diana dultzainarekin.

**11:00etan:** Meza.

**12:30ean:** Ohiko pelota partidua Arano eta Goizuetako afizionatuen artean: ARANO: Gaskon-Legarreta. GOIZUETA: Narbarte-Eskudero.

**18:00etan:** Herri Kirolak:

- Aizkolariak: Larretxtea eta Nazabal.
- Aizkolari gazteak: Ruben 15 urte eta Eneko 13 urte.
- Harrijasotzaileak: Migeltxo Saralegi eta Ostolaza.

**19:30ean:** Bertsolariak: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Unai Iturriaga, Agin Rezola. Gai jartzen Xabier legarreta. Ondoren kalejira Izer eta Alabier trikitilariekin.

### Asteazkena 26
SAN JOAKIN ETA SANTA ANA EGUNA

JUBILATUEN EGUNA

**10:00etan:** Diana.

**11:00etan:** Meza. Ondoren hamaiketakua Kontsejun

**12:30ean:** pelota partiduak afizionatuen artean: Huizi-Gorrotxategi eta Sancho-Arruti.

**14:00etan;** Bazkaria kontseju jatetxean, Imanol Lazkano eta jose Agirre bertsolariekin.

Benta Berri jatetxea
Larunbatetan eta astelehen arratsaldetan itxita
Sukaldaritza tradizionala
✆ 948 514018 • Urumea • ARANO

GURE AMETSA jatetxea
Jai zoriontsuak opa dizkizugu
✆ 948 514000 • ARANO

Aranoko Udalak
jai zoriontsuak opa dizkizue
herritar eta bisitari guztiei





# 2006

uztailaren 14tik 17ra

# ITUREN

## Santioak

uztailaren 22tik 28ra

# ELGORRIAGA
# ELIZONDO

Herriz herri,
bestaz besta














Iturengo Udalak
Besta Zoriontsuak
opa dizkizue
Iturendar eta
bisitari guztiei


# ITUREN

uztailaren 14tik 17ra

## Uztailak 14 Ostirala

11:00etatik 13:00era eta 16:00etatik 18:00etara: **HAUR JOKUAK**
**TXIRRISTA – PILOTEN ETXEA – GIZA-TIRAGOMA**
19:30etan: ITURENGO DANTZARIEN saioa plazan.
Ondotik **TXOKOLATE** jatea herriko plazan.
20:30etan: **TXUPINAZOA**. Aupa Ittungo bestak!!
Ondotik kalejira trikitilari eta txistulariekin.
00:30tik 04:00etara: Dantzaldia **GAUBELA** taldearekin.

## Uztailak 15 Larunbata

10:00etan: kalejira trikitilari eta txistulariekin
12:00etan: **PILOTA PARTIDUAK** herriko haurren artean.
Ordu berean, herria alaitzen bertako akordeolari taldea ibiliko da.
18:00etan: **TRIKITIXA JAIALDIA**. Mendaur trikitixa eskola, Irats trikitixa eskola eta Lesakako trikitixa eskolako ikasleekin.
20:00etatik 22:0etara: Dantzaldia **AGERRALDE** akordeolariarekin
00:30ean 04:00etara: dantzaldia **JALISKO BAND** taldearekin







## Uztailak 16 Igandea

10:00etan: kalejira trikitilari eta txistulariekin.
11:00etan: **MEZA NAGUSIA.**
13:00etan: **PILOTA PARTIDUAK.**
**OSKAR URRUTIA – ERASO // IRAOLA- ELIZALDE**
18:00etan: **II. Mailako AIZKOLARI TXAPELKETA**KO kanporaketa.
Ondotik herriko dantzariek berreskuratu duten **DANTZA LUZEA** dantzatuko dute. Hutsik ez egin!!!
Arratsaldez eta gauez: Dantzaldia **GAUBELA** taldearekin.

## Uztailak 17 Astelehena

10:00etan: kalejira trikitilari eta txistulariekin
14:30ean: HERRI BAZKARIA bertsolariekin.
Ondotik kalejira 17:30ean: MUS TXAPELKETA.
Arratsaldez eta gauez: Dantzadia **AGERRALDE** akordeolariarekin.

# ELGORRIAGA
## Santioak

uztailaren 22tik 26ra

### Uztailak 22 Larunbata

**20:00etan:** Bestei hasiera emateko **SUZIRIA** txaranga eta txistulariekin
Ondotik **ZOPAK** izanen dira.
**00:00etatik aitzinera:** Dantzaldia **JALISKO BAND** taldearekin.

### Uztailak 23 Igandea

**11:00etan:** **HAUR JOKUAK** izanen dira.
**20:00etan:** Tortilla txapelketa.
**Arratsalde eta gauez:** Danizaldia **JOXE ANGEL** akordeolariarekin.

### Uztailak 24 Astelehena

**11:00etan:** Partxis txapelketa.
**14:00etan:** **HAURREN BAZKARIA.**
**17:00etan:** Herritarren arteko mus txapelketa eta berendua.
**00:00etatik aitzinera:** Dantzaldia **JALISKO BAND** taldearekin

### Uztailak 25 Asteartea

**10:00etan:** Argi soinua
**11:00etan:** Meza Nagusia
**12:30ean:** **AGORRETA** Musika eskolakoen emanaldia.
**18:00etan:** **GORRITI** eta bere animalien ikuskizuna.
**Arratsalde eta gauez:** Dantzaldia **JOXE ANGEL** akordeolariarekin.

### Uztailak 26 Asteazkena

**12:00etan:** Herritarren arteko Soka txapelketa
**14:00etan:** **ZIKIRO JATEA** izanen da **MODESTO** akordeolariarekin
Ondotik Doneztebeko **BETI ALAI** txaranga.

ETXEBERRIA
zurgindegia
zurgin lanak orokorrean
Tel: 948 450 310
Mugikorra: 608 677 997
ELGORRIAGA

Elgorriagako Udala
Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu!!
GORA SANTIOAK

ELGORRIAGAKO
BAINUETXEA
- 60 logela bikoitzeko hotela ***
- 240 lagunendako bainu-eremua
  Sauna, bainu turkiarra, masaia...
  Bizkortze terapiendako igerilekua
- Jatetxea eta Kafetegia
- Liburutegia eta Haurtzaindegia
- Uraren museoa eta uraren bidea

Laister zuekin



bar restaurante
TXOKOTO
ostatu jatetxea
Tfnoa.: 948 580 349
Braulio Iriarte, 25
ELIZONDO

Eskisaroi
jatetxea
Jaime Urrutia karrika · Tfnoa: 948 580 013
ELIZONDO

GOIZ-ALDE ostatua
Aukera zabala kaxula, bokata eta pintxotan
Jaime Urrutia, 8 · ELIZONDO · Tel: 948 581 334

Gonzalez anaiak
aroztegi metalikoa
Burdina eta aluminioa
F. Joakin Iriarte, 5
Tfnoa: 948 580 337
ELIZONDO

INTZA
Ostatua
Besta on batzuk opa dizkiegu kanpoa daudenei ere
Jaime Urrutia · ELIZONDO · Tfnoa: 948 580 417

Baztan
Panifikadora
Edari banatzailea:
Coca-cola, San Miguel
Insalus, Gurutzeta sagardoa
Ardo berexiak...
Berekoetxea Gotzaia, 3 · ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 305 - 948 580 138

BICLAM
ileapaindegia
Braulio Iriarte, 58 • ELIZONDO • Tfnoa: 948 581 874
ORDUTEGIA:
asteartetik ortzegunera 9:00-13:30 / 15:30-19:30
ortziraletan 9:00-19:30 • larunbatetan 8:00-18:00
igande eta astelehenetan itxia

# Santioak

uztailaren 22tik 28ra

# ELIZONDO

## Uztailak 22 Larunbata

20:30etik 22:30era:

Foruen plazan, **USTARIZ** antzerki taldearen emanaldia.

## Uztailak 23 Igandea

23:30etik 03:30era:

Foruen plazan, **ARRIVEDERCI LOLA** taldearen Rock kontzertua.

Erraldoi eta Buruhaundiak, Baztango gaiteroekin Jaime Urrutia, Pintor Javier Ziga plaza, Braulio Iriarte, Mendinueta, Santiago eta Francisco Joaquin de Iriarte karriketan barrena ibiliko dira, Zahar Etxean akitzeko.



Argazkiak: MENA



Besta aitzineko egunetan hainbat ekitaldi antolatu dituzte. 24an hasiko diren Santiago bestetarako motorrak berotuko dituzte Elizondarrek.











Argazkiak: MENA


Podologoa

Plantillak egiten dira

Papilomak kentzen dira

✆ 609 116088 · 943 643 093 • ELIZONDO

Pedro Axular, 4-2.esk (Santxotena ondoan)

Bundain

bitxitegia erlojutegia





Urrekin egina

Tartak eta pastelak

Etxean egindako izozkia

Gozotegia

Malkorra

Besta onak pasa!

Santiago, 15 · Tel: 948 580 061 · ELIZONDO





Zuen eguna gurekin

FOTO MENA

Tel. 948 58 01 55. ELIZONDO. Tel. 948 45 08 25. DONEZTEBE.

MAÑONEA agentzia
aholkularitza eta aseguruak
Estrella aseguruak
Braulio Iriarte, 9 - ELIZONDO
Tel: 948 581 132

onegin
Herbodietética Ekodenda
— ZERBITZUAK:
DIETISTA: Gantzen neurketa, Diabetes, Kolesterolarentzako dietak, Argaltzeko dietak.
NATURISTA: Akupuntura, Homeopatia, Naturopatia, Psikoterapia, etab.
— PRODUKTU EKOLOGIKO eta NATURALAK
— PRODUKTU ARTISAUAK
Jaime Urrutia, 26, behea • ELIZONDO • 948 581 932

SALDIASko
okindegia
egurrezko labea
Olasoa etxea - Tel: 948 615 046
SALDIAS

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA
Borden salmenta eta etxeen alokairua
Zurich Aseguruak
Lan aholkularitza
Aholkularitza fiskala
Inmobiliaria
Gestoria
Santiago, 15 - Tel-Faxa: 948 580 804
ELIZONDO









Haur margo lehiaketa. Animalien ikuskizuna: poniak, baxurdeak, xexenak… izanen dira haurrei ongi pasatzeko aukera emanez. Herriko elizan, Salbea eta Koralaren kantaldia entzuteko aukera izanen du Elizondoko Santioetara hurbiltzen den edonork. Egun osoan zehar karriketako animazioa izanen da.

Argazkiak: MENA

## Uztailak 24 Astelehena

**12:00etan:**
Baztan Balleko Etxeko balkoitik **SUZIRIA** botako da. Ondotik **INCANSABLES** eta **XALBADOR** txaranga, txistulariak eta gaiteroekin Foruen Plazan bestei hasiera emateko **BAZTANZOPAK** eta ardoa.

**16:00etan:**
"Elizondoko Herria" Haurrei zuzendutako Margo Lehiaketa: kanpoan egina eta teknika librearekin. Ondotik, partehartzaile guztientzat merendua. Sarien banaketa, materiala, kontrola eta erakusketa Balleko Etxeko arkupean izanen dira.

**17:00etatik 21:00etara:**
Baztan frontoia, animalien ikuskizuna: poniak, basurdeak, xexenak eta oilar-jokoa

**18:30ean:**
RIAU-RIAU. Alkate-juradoa, korporazioa eta gonbidatuak elizara abiatuko dira Salvea entzutera. Jaime Urrutia, Virgilioko malda, eta Santiago karrikatik, Erraldoi eta Buruhandiak, Baztango gaiteroak, Xalbador txaranga, Elizondoko txistulariak, Baigorriko gaiteroak eta Elizondoko Txistulari Gazteekin. Ibilbidean ttantta goxoa eta pastak izanen dira.

**20:00etan:**
Elizondoko koralak, Isabel Lakarren zuzendaritzapean, usaiako Eslabaren Salvea eta Santiagoren Himnoa kantatuko ditu elizan.

**24:00etatik 04:00etara:**
Foruen Plazan, Latinar Salsa ikuskizuna **SON DEL RIO** taldearekin.

**Eguerdian, arratsaldean eta gauez:** karriketan animazioa Elizondoko txistulariak, Baigorriko Gaiteroak, Baztango gaiteroak, Iruñeko gaiteroak, Xalbador Txaranga eta Incansables txaranga.



Argazkiak: MENA





ELIZETXE
material elektrikoak
Tel: 948 581 261 · Faxa: 948 452 397
Santiago, 83 (Industrialdea) · ELIZONDO

Galarregi
Supermerkatua
Zerbitzu atsegina
Aukera zabala edari eta likoreetan
Santiago, 12 · ELIZONDO · Tfnoa: 948 580 005

arkitanak
ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA
ETXEBIZITZA PROIEKTOAK
URBANIZAZIO PROIEKTOAK
ETXE BERRITZEAK
NABEAK
KONSULTAK
INFOGRAFIA: 3D
SANTIAGO 55 2°B ELIZONDO TLF 948 581 931

# ELIZONDO - IGANTZI LEKUNBERRI

## Apartamentu eta etxebizitzak laster eraikitzekoak

Babes Ofizialeko Etxebizitzak eta Libreak
Lokal komertzialak eta lurpeko aparkalekuak



P A R A J E ZO

**Lindutx Baztan**
eraikuntza



# ARIZKUNEN

**Familia bakarreko etxeak, laster eraikitzekoak**

- Partzela pribatuak $500m^2$tik hasita
- 2 etxebizitza aukeratzeko





RAGARRIAK

S.L. 676 509 312

ak ELIZONDO











# Uztailak 25 Asteartea

## Santiago egune

**09:30ean:**
Argi Soinuak txistulari eta gaiteroekin: Elizondoko txistulariak, Elizondoko txistulari gazteak eta Iruñeko gaiteroen eskutik.

**11:30ean:**
Meza Nagusia. Elizondoko koralak, Elizondoko Bandak lagundurik, Eslabaren Meza eskainiko du.

Ondotik Erraldoi eta Buruhandien, Baztango Gaiteroen laguntzaz, Santiago karrika, Ziga plaza, Braulio Iriarte, Giltxaurdi eta Zahar Etxeko ibilbidea eginen dute.

**14:00etan:**
Alkate-Juradoak Anaitasun bazkaria eskainiko du, Balleko herrietako alkateei, Udaleko ordezkariei eta gainerako gonbidatuei.

**17:00etatik 19:00etara:**
Foruen plazan Herri kirolak

**17:00etatik 19:00etara:**
Elizondoko karriketan **BRASILEIRA BATUKADA.**

**21:00etan:**
Ziga plazan, Iruñeko gaiteroak, txistulariak eta akordeoilariak: muxikoak, gaita, polkak, mazurkak, Larrain-dantza, etab.

**22:00etan:**
Mutildantzak Foruen Plazan.

**24:00etatik 03:00etara:**
Foruen Plazan **LOS CAPORALES** Mariatxiak

**Egun osoan animazioa karriketan:**
Elizondoko txistulariak, Baigorriko Gaiteroak, Baztango Gaiteroak, Artaxonako txaranga, eta Gau Erdi fanfarrea.









Santiago egunean jende guztiendako ekitaldiak izanen dira: Meza nagusiarekin, herri kirolak, Batukada eta Mariatxiak.







Argazkiak: MENA





Sansiñena
garagea

zerbitzu ofiziala

- Tailer mekanikoa
- Kotxeen salmenta eta konponketa
- Engraseak

- Agria, New Holland traktoreak
- Erabilitako nekazal tresneria

zerbitzu ofiziala AGRIA

Santiago, 37 · Tfnoa-Faxa: 948 580 406
ELIZONDO





KONGELATUAK:
Albondigak
Urdaiazpiko, oilasko, piper eta arraultze kroketak

Esarte
AINTZINETIK PRESTATUTAKO JANARIAK

Orain Bera, Lesaka, Etxalar eta Doneztebeko janaridendetan

Jaime Urrutia 35 · ☎ 948 58 01 28
ELIZONDO

ELORDI LIBURUDENDA
Egunkariak, Aldizkariak, Eskolako materialak, Liburuak... enkargatu ezazu nahi duzun liburua.
Santiago, 71 - ELIZONDO - Tel: 948 580 332




"la Caixa"
Besta on batzuk opa dizkizuegu!
ELIZONDO
Santiago, 27 • Tel.: 948 581 414 • Faxa: 948 581 815

Albaitaritza
ELIZONDO 948 580 980
IRURTZUN 948 500 343
PRODUKTU ZOOSANITARIOAK
ALBAIKIDE
ALBAITEROAK 902 169 169
Euskal baserritarren zerbitzura
www.albaitaritza.com
Merkataritza: Botika • Osagarri mineralak
Bildots eta aratxeendako esnea
Xaboi eta desinfektatzaileak
Materiala • Hazia • Nitrogenoa • MVE garrafak


Argazkiak: MENA

Haurrek gehien espero duten eguna ekitaldiz betea izanen da aurten ere. Karts pista, puzgarriak zezen mekanikoa, apar besta, pailazoak, txokolatada, japoniar bonbak... Ederki disfrutatzeko aukera paregabea haurren egunean. Ilunabarrean, dantzaldia, mutildantzak, dantzatoki mugikorra, DJ-ak, gogoak, bideo pantaila...

## Uztailak 26 Asteazkena

### Haurren egune

**09:30ean:**
Argi Soinuak, Elizondoko txistulari, Elizondoko Txistulari Gazte eta Iruñeko Gaiteroekin.

**11:00etan:**
Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa, Baztango Gaiteroekin batera, Santiago karrika, Aldude, Santiago, Mª Azpilkueta, Aita Donosita, Diputazio Etorbidea, Akullegi, Saskaitz Plaza, Datuzelaia, Santiago eta F. J. Iriarte Zahar Etxea ibilbidea eginen dute.

**11:30etik 13:30era 16:30etik 20:30era:**
Baztan frontoian, Karts pista, puzgarriak, zezen mekanikoa, apar besta eta pailazoak.

**12:00etatik 13:00etara 15:00etatik 21:00etara:**
Merkatuko plazan, **GIZA-FUTBOLINA**. (Adin guztiak)

**17:00etatik 18:00etara:**
Foruen Plazan Marratxo Ingumaren ekitaldia. Ondotik txokolatada eta japoniar bonbak.

**18:00etatik 22:00etara:**
Dantzaldia Foruen Plazan **AGIRREN ANAIAK** taldearen eskutik.

**21:00etan:**
Ziga Margolariaren plazan, Baztango Gaiteroak, Txistulariak eta akordeoilariak: Muxikoak, gaita, polkak, mazurkak, Larrain-dantza...

**22:00etan:**
Foruen Plazan Mutildantzak izanen dira ikusgai.

**23:00etatik 03:00etara:**
Dantzatoki mugikorra, 8.000 Watteko soinua, iluminazio ikusgarria, Dj-ak, gogo-ak, ke makina, bideo pantailak, musika estilo guztiak eta azkeneko nobedadeak Foruen plazan izanen dira.

Egun osoan karriketako animazioa izanen da, Elizondoko txistulari, Iruñeko Gaitero, Baztango Gaitero eta Los Incansables txarangaren eskutik.

ferretería Quevedo
Babesa eta edertasuna guziaren gainetik
· Elektrizitatea
· Zerrraildegia
· Erremintak
· Joareak
· Haziak...
TITANLUX
BONDEX
Pinturas Procolor
Santiago 21 eta 31 · Tfnoa: 948 580 234 · Faxa: 948 581 210 · ELIZONDO



HOTEL SASKAITZ
Mª Azpilkueta karrika, 10
Tfnoa-Faxa: 948 580 488 - 948 580 615
ELIZONDO
hotelelizondo@biaizpe.net

LABORRA LARUMBE
arkitektoak
Tel: 948 580 122
Faxa: 948 581 888
Santiago, 54-1-ELIZONDO
Tel-Faxa: 948 134 563
Konstituzio Plaza, 3-1
3 eta 4. bulegoak-BURLATA
larumbe@es.inter.net

Iris
Ongi pasa Bestak!!
LOREDENDA - Elizondo
Naturala: Jaime Urrutia, 19 - Tfnoa: 948 58 10 53
Artifiziala: Jaime Urrutia, 21 - Tfnoa: 948 58 10 53

IPARLA kirolak
Mendiko materiala
Kirol oinetakoak, Txandalak
Santiago, 51 • ELIZONDO
948 580 585

MENDI
ostatua
Santiago, 25
Tfnoa: 948 580 313
ELIZONDO
ongi pasa bestak!!

ESKIZ
INFORMATIKA ZERBITZUAK
Ongi pasatu bestak!!
Orain helbide berrian: Maurizio eta Felix plaza ondoan
Tel: 948 581 822 · Braulio Iriarte, 4 behea · ELIZONDO

Belardenda eta Dietetika
Natura Etxea
· Sendabelarrak
· Produktu naturalak
· Kosmetika naturala
· Naturopatia kontsulta
· Pisu-terapia
· Zapata naturalak
· Liburuak
Santiveri
Vegetalia
Eco Natur
Soria Natural
Santiago, 47
☎ 948 580 203
ELIZONDO
Besta onak pasa!!

## Uztailak 27 Ortzeguna

### Pilotaren egune

**09:30ean:**
Argi Soinuak txistulari eta gaiteroekin: Elizondoko Txistulariak eta Iruñeko Gaiteroak.

**11:00etan:**
Erraldoi eta Buruhaundiak, Baztango gaiteroekin, Santiago karrika, Saskaitz plaza, Mendinueta, Jaime Urrutia eta Fco. J. Iriarte Zahar Etxean barna ibiliko dira.

**12:00etan:**
Mariano Izeta errebote plazan, Elizondoko Bandaren kontzertua.

**12:00etatik 13:00etara 15:00etatik 21:00etara:**
Merkatuko plazan, **GIZA-FUTBOLINA**. (Adin guztiak).

**13:00etan:** Herriak gonbidatutako Fco. Joakin Iriarte Zahar Etxeko adinekoendako bazkaria, **JOXE ANGEL** akordeolariak alaitua.

**16:00etatik 21:00etara:**
Baztan frontoian, animalien ikuskizuna haurrendako: Poniak, basurdeak eta Oilarren kontzertua.

**17:30ean:**
Baztango Frontoian, lehen mailako eskuzko pilota partidak:

**KOKA – ESKUDERO / ESAIN ARGOTE**
**OLAIZOLA II – BEGINO / BENGOETXEA VI - OTXANDORENA**

**19:30ean:**
Dantzaldia Foruen Plazan **ALBOKA** taldearekin.

**21:00etan:**
Ziga plazan Iruñeko gaiteroak, txistulariak, eta akordeolariak: Muxikoak, gaita, polkak, mazurkak, Larrain-dantza...

**22:00etan:**
Foruen Plazan Mutildantzak.

**24:00etan:**
Dantzaldia Foruen Plazan **ALBOKA** taldearekin.

Egun osoan karrikako animazioa: Elizondoko txistulariak, Baztango gaiteroak, eta Lesakako Txakain txaranga.







Pilotaren eguna ere antolatu dute aurtengo bestetan. Musika Bandak kontzertua eskainiko du eta Giza Futbolinean parte hartzeko aukera izanen da. Urtero bezala Pilota partida profesionalak ikusgai izanen dira. Karrikako animazioa egun osoan zehar ibiliko da herrian.



Argazkiak: MENA




FANTXIKE
Mertzeria · Opariak
Lentzeria
HAUR, GAZTE
eta HELDUEN ARROPA
Ongi pasa bestak!!
Jaime Urrutia, 15 · ELIZONDO · Tel: 948 580 312

GRAMI
hortz klinika
Paularena, 29
ELIZONDO
Tfnoa: 948 581 033

ZERGALAN
aholkularitza
Baztan Plaza · ELIZONDO
Tfnoa./Faxa: 948 58 13 00
e-mail: zerga@telefonica.net

Enpresendako aholkularitza zerbitzu integrala

- Fiskala
- Kontablea
- Laborala
- Autonomoak
- Enpresa berriak sortzea



























Argazkiak: MENA

## Uztailak 28 Ortzirala

### Herriaren egune

**09:30ean:**
Argi Soinuak Elizondoko txistulari eta Baztango Gaiteroekin.

**11:00etan:**
Erraldoi eta Buruhandiek, Baztango Gaiteroez lagunduta, Santiago karrika, Foruen Plaza, Jaime Urrutia, Braulio Iriarte, Giltxaurdi, eta F. Joaquin de Iriarte Zahar Etxean barna ibiliko dira.

**11:30etik 13:30era:**
Baztan frontoian, Karts pista, Puzgarriak, Zezen mekanikoa, Apar besta eta pailazoak. (Doan)

**14:30ean:**
**ZIKIRO-JATEA** Kuarteleko zelaian. **XALBADOR** txaranga eta **INCANSABLES** txarangarekin.

**16:30etik 20:30era:**
Baztan frontoian, Karts pista, puzgarriak, Zezen mekanikoa, Apar besta eta pailazoak.

**19:30etik 21:30era:**
Foruen Plazan dantzaldia **MOMPAS** orkestrarekin.

**21:00etan:**
Ziga Margolariaren plazan Iruñeko Gaiteroak, txistulariak eta akordeoilariak: muxikoak, gaita, polkak, mazurkak, Larraindantza...

**22:00etan:**
Mutildantzak Foruen Plazan.

**24:00etan:**
**"GAIXOA NI"**. Foruen Plazatik abiatuko da herriko karrikak kurrituz eta ostatuz-ostatu **INCANSABLES** txarangarekin.

**01:00etatik 04:00etara:**
Dantzaldia Foruen Plazan **MONPAS** taldearen eskutik.

Egun osoan animazioa karriketan: Elizondoko Txistulariak, Baztango gaiteroak, Xalbador txaranga, **INCANSABLES** txaranga eta **EZPELETAKO** txaranga.



ADATSA
ileapaindegia
ELIZONDO

GALARZA
jatetxea
Tel: 948 580 101 - ELIZONDO

Clinica Dental
Irurita - Rubio
ODONTOLOGIA
ORTODONTZIA
INPLANTEAK
Dr. Jose Luis Irurita (Kol.240)
Dr. Bihotza Rubio (Kol. 241)
odontologia medikuak
Rx.panoramikoa - periodontzia
Kirurgia - endodontzia - protesiak
ODONTOPEDIATRIA - PADI
ortopedia maxiliarra - umeak eta helduak
Leitza 948 610 713 Doneztebe 948 450 267

Pedro GARMENDIA
Zerbitzu Estazioa
Tfnoa.: 948 580 309 · ELIZONDO
• Gasolina eta Gasoila
• Presio bidezko garbiketa
• Garbiketa automatikoa
• Olio eta lubrikatzaile salmenta

Cris
ileapaindegia
Tel: 948 580 025 · Giltxaurdi, 16 · ELIZONDO

egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio iriarte 33, 1ºD · 31700
948250371 iruñea · irabeko monastegia 62, 4ºC · 31011

MAPFRE
aseguruak
Santiago, 46 · ELIZONDO
Tfnoa: 948 580376

NAFARPRESS
Prentsa-Aldizkariak
eskola eta bulego materiala
Liburudenda
Eskargatu zure testu-liburuak
Jaime Urrutia, 43 · Tel: 948 580 902 · ELIZONDO

Oskariz
anaiak, S.L.
mota guzietako argin lanak
Telefonoak: 948 452 255 · 619 406 388
Maiderreneа etxea · ELIZONDO

ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Braulio Iriarte, 16
ELIZONDO

Astiz Anaiak
zurgindegia
zurgintza lanak
orokorrean
ongi pasa bestak!
Aldude etorbidea, 5 · ELIZONDO
Tfnoak: 699 325 449 · 948 580 886

## Uztailak 29 Launbeta

20:00etatik 21:30era:

**TXARANGO** taldearekin dantzaldia.

23:00etatik 01:30era:

Umorezko ikuskizuna **LOS FONOKARETOS**ekin.

01:30etik 03:30era:

**TXARANGO** taldearekin dantzaldia.







Argazkiak: MENA


Goñi
haragtegia
Ongi pasa herriko bestak!!
Santiago karrika
☎ 948 580 164
ELIZONDO


KATALOGOAK
ALDIZKARIAK
TXARTELAK
EGUTEGIAK
FOILETOAK
LIBURUAK
KARTELAK
LOGOTIPOAK
KULTURKARI
publizitatea zerbitzuak
Andutzeta 12, 31760 ETXALAR
Tfnoa: (0034) 948 63 54 58
www.ttipi.net • kulturkari@ttipi.net
frexka
zaitez
gurekin!!


OÑASKA
ERRETEGIA
BEREZITASUNAK :
Betiko euskal sukaldaritza
Haragiak eta arraiak brasan
ASTEBURU - JAI EGUNETAN:
Pittike errea
ETXEKO POSTREAK
Bagordiko bidea • ELBETEA • 948 452 088


LEON
Mekanika · Elektrizitatea · Gasen Aztertzailea
ITVrako prestakuntza · Ordenagailu bidezko
Direkzio zuzenketa
LEON
SEAT
DATUCELAY
ELIZONDOko sarreran · Tfno: 948 580 225

# PEDRO GARMENDIA, S.A.

RENAULT




Frantziako errepidea z/g • ELIZONDO • Tfnoak: 948 580 431 Faxa: 948 580 973

autoeskola

# OLITeLKAR

- ISO kalitatearen zigilua lortzen duen Nafarroako lehenengo autoeskola.
- Kamioiaren gida baimena ateratzeko ikastaro subentzionatuak 2. sei hilabetekoan.



Saskaitz Plaza · Tfnoa: 948 580 077 · **ELIZONDO**

Olite karrika, 34 · Tfnoa: 948 232 956 · **IRUÑA**

2006ko UZTAILAREN 22tik 29ra

# MISTERIO DE OBANOS

DONE JAKUE BIDEKO KONDAIRA BAT
TURISMO-INTERESEKO IZENDATUA

IKUSKIZUNAREN ORDUA: 22:00
SARRERAK: 18 €
SARREREN SALMENTA: 012 INFOLOCAL, EL CORTE INGLES
ETA FUNDAZIOAREN TELEFONOETAN 948 344 541 / 948 344 544

Antolatzailea:

FUNDACIÓN MISTERIO DE OBANOS

Babesleak:

Gobierno de Navarra
Ayuntamiento de Obanos
can
Diario de Navarra
XUNTA DE GALICIA
A. Erro y Eugui
MAPFRE

Laguntzaileak:

Rollo Construcciones, Construcciones Suescun, Empresas Villanueva, El Corte Inglés, Iberdrola y Autobuses Artieda.

Lankidetzak:

Obanoseko herri osoa, Arnotegiko ermitariak, San Joan Bataiatzailearen Parrokia eta Lamiategui Elkartea

NAGORE & NAGORE

GOIZUETA

# Drogomenpekotasunari buruzko ekitaldiak eta antzerkiak antolatu ditu Gazte Adanbladak

## Hilaren 19an hitzaldia emanen du Txus Congilek

Esteban AROTZENA

Gazte Asanbladakoek ekitaldiz gainezka bete dute aurtengo uztaila. Hain arrakastatsuak suertatu diren Arantzako mendi martxa eta sexualitate ikastaroarekin hasi, eta hilaren 17, 18, 20 eta 21ean burutuko den antzerki ikastaroak emanen dio jarraipena. Tarteko 19a ez dute ikastaroetako partaideek deskantsua hartzeko jaso, Askagintzako Txus Congilek drogen erabilerari buruz emanen duen hitzaldira joateko baizik. Lau eguneko hitzordua arratsaldeko 7etan da, eta lekua berriz Gaztetxea. Azkeneko gaiaren osagarri ederra izanen da hilaren 17tik 22ra ilunaberrero gaztetxearen beheko solairuan ikusgai egonen den erakusketa. Aipatzekoa da jardunaldi hauek antolatzeko Gizarte Zerbitzuak Gazte Asanbladari emandako laguntza.

### Pilartxo Lujanbio jubilatu da

Ia bizi osoa herriko eskolako maistra izan ondoren, aurtengo kurtso bukaeran jubilatu egin da Pilartxo Lujanbio. Ikasturte bukaerako mendi irteera aprobetxatu zuten lankideek, ikasleek eta guraso elkartekoek ongi merezitako omenalditxoa eskaintzeko Pilartxori.

Kasualitateak horrelaxe nahi eta, Pilartxo jubilatu orduko bere alaba bat Xalto eskolako maistra izanen da irailetik aurrera, Ttipi-Ttapako kolaboratzaile fina den Maitane Apezetxea hain zuzen.

### Irurtzungo Torneoa

7 eta 8 urteko Iker Salaberriak eta Ander Apezetxeak Irurtzungo torneoko finala irabazi berria dute bikotea osatuz. Altzaren zainetik altza, bi kasuetan ere. Martin Etxeberriak berriz, finala galdu zuen torneo berean. Doneztebeko torneotik ez zen zapelik etorri herrira, baina Iker Salaberria-Mikel Apezetxea eta Aimar Zugarramurdi-Xabier Apezetxea bikoteak finalean izan ziren.






ARGAZKIAK: MAITANE APEZETXEA ETA UTZITAKOA

**Pilartxo Lujanbiori eskainitako omenaldia eta Irurtzungo txapeldunak eta txapeldunordea.**

ARESO

# Haurrentzako udako jokuak hasiak dira

## Itxaso Onsalo eta Alaitz Olano herritarrak izanen dira begiraleak abuztuaren 10a bitarte

Juana Mari SAIZAR

Azken urte hauetan bezalaxe, aurtengo udarako ere haurrentzako jokoak martxan jarri dituzte. Goizero, 17 ume inguru biltzen dira, bi begiraleekin batera, mota guztietako jolasak eginez, tailerrak, ibilaldiak, irteerak… goiza giro polit batean pasatzeko. Aurtengo begiraleak Aresoko bi neska gazte dira, Itxaso Onsalo eta Alaitz Olano. Hauek biak, uztailaren 3tik abuztuaren 10a arte, umeen kargua hartuko dute egunero 11etatik 13etara. Bertan erabili beharreko materiala erosteko, 10 euro ordaindu behar du ume bakoitzak eta jolas hauek aurrera eramateko, eskola erabiltzen dute tailer moduan.



ARGAZKIA: AITOR A.

***Brontzezko domina 640 kilotan***

**Sokatira taldeak, brontzezko domina irabazi du Euskal Herriko lur gaineko sokatira txapelketan, 640 kiloko kategorian, Nuarbe eta Gaztediren atzetik. Lesakan, uztailaren 2an izan zuten azken saioan bikain ibili ziren.**

## LEITZA




UTZITAKO ARGAZKIA

**Aurtengoan Bai Euskarari ziurtagiria jaso duten Areso eta Leitzako elkarte, lantegi, komertzio eta beste erakundetako ordezkariak ageri dira argazkian.**

# 57 Bai Euskarari ziurtagiri banatu dira Leitza eta Areson aurten

### Ekainaren 30ean eman ziren agiriak festa giroan

**ttipi-ttapa**

Leitza eta Aresoko 57 elkarte, lantegi, denda eta beste erakundek Bai Euskarari ziurtagiriak eskuratu zituzten ekainaren 30ean, euskararen normalizazioaren alde urratsak egiteko konpromisoak hartu eta betez ari direnaren erakusgarri. Joan den urtetik 9 eragile berri gehitu dira ekimenera, hirugarren urte honetan.

Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkariak aipatu zuenez, *«pozgarriena, iaz konpromisoak hartu zituzten erakundeek urtean zehar bete eta neurri berriak hartu dituztela ikustea da, batzuk maila gainditu eta zerbitzuak euskaraz ematera iristeraino, eta entitate berriak gehitu direla euskararen normalizazioaren aldeko prozesura»*.

Txalapartariek, bertsolariek eta dantzariek ere parte hartu zuten ziurtagiri banaketa ekitaldian, agiridunei omen eginez. Jarraipen batzordeko Sagrario Lasartek ere zoriondu zituen eragileak, *«euskararen presentzia handitzeko aurrerapausoak ematen jarraitzea ezinbestekotzat»* joz.

Kontxi Zozaiak, ziurtagiria jaso zuten eragileen ordezkariak aipatu zuenez, *«horrela, Leitza eta Areson euskaraz, ikasi, lan egin, erosi, irakurri, informatu, azken finean euskaraz bizitzea, errazago eginen dugu guztiok bide honetatik segituz gero»*.

Gaztetxoen artean euskara sustatzeko asmoz, "Herria euskaraz jantzi" jaia ere antolatu zuen ziurtagiria duen Erleta Ikastetxeak.

## FLASH

### Zaldiaren Eguna Inguruarten

Uztailaren 1ean ospatu zen sortu berria den Aurrera Perra taldeak lehen aldiz antolatutako Zaldiaren Eguna. Inguruarten, ibilbideetarako prestatutako 60 zaldi ikusi ziren. Espainiar heziera, wester heziera, saltoak eta heziera naturala erakusketak burutu ziren. Hazitarako zaldi arraza ezberdinak ere ikusgai izan ziren, baita perraketa erakustaldiak ere. Haurrek, poni eta zaldi mantsoen gainean ibiltzeko aukera izan zuten.

### Plazako pilota txapelketa

Igor Aldaiak eta Unai Olanok irabazi zuten uztailaren 1ean, Plazako eskuz binakako pilota txapelketa. Finalean 22-16 irabazi zieten Iñaki Alduntzin eta Joseba Sagastibeltzari. Hirugarren posturako lehian, Arkaitz Bengoetxea eta Asier Gartziak 22 eta 12 irabazi zieten Makatzagatarrei.

### Gorriztarango festak

Umore ederrean joan ziren uztailaren 2an Gorriztarango festak. Trikitilariak, herri kirol saioa, mus txapelketa eta XXII. Txintxurrin txapelketa izan ziren.

Arkb arkitektura bulegoa
Celia Lana Ranz
Huarte Gotzai 7 - 31880 Leitza - 645008478 tel
Eraikuntza Hirigintza Udal-aholkularitza

txokoberri
Aluminioan espezializatuak
• Arozteqi Metalikoa (leihoak.ateak.barandak....)
• Parket
Eneko eta Alfredo / Donamaria / Nafarroa Tel: 618 881 924

luis cestau baraibar
arkitekto teknikoa
leitza 607204485
lucesba @ msn.com

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa • saneamendua • gasa
✆ 948 510086 / 510156 fax: 948 610856 LEITZA

BAZTAN

# Baztandarren Biltzarra aste hondar honetan ospatuko da

## Orgen desfilea ordu erdi lehenago abiatuko da igandean

ttipi-ttapa

Uztailaren 15ean eta 16an ospatuko da aurtengo Baztandarren Biltzarra. Larunbatean, 19:00etan, «Impresentables» txaranga ibiliko da Elizondoko karriketan barna. 20:00etan Debako Gure-Kai dantza taldea karrikaz karrika ibiliko da, Txokotik abiatuta. Ekitaldi honek Baztango Udalaren laguntza du. Gauerdiko 0:30ean hasita, Laiotz taldearekin dantzaldia izanen da plazan.

Halere, egun handia igandekoa izanen da. 10:00etan artisauen erakusketaren irekiera eginen da Santxotenaren parean. 11:30ean orga apainduen desfilea abiatuko da. Aurten, antolatzaileek ordu erdi aitzindu dute desfilearen irteera, partehartzaileek eta ikusleek bazkarira tenorez ailegatu ahal izateko. 13:45ean mutildantzak izanen dira plazan eta 14:30ean herri bazkaria izanen da Merkatuzelaian. Bazkalondoan bertsolariak, muxikoak, Jaione Olazabal eta Oskar Estanga kantariak, zozketa, Trikidantz musika taldea eta bertze emanaldiak izanen dira. 15:00etan haurrendako puzgarriak izanen dira luzeko pilota plazan eta 20:00etan Laiotz taldea arituko da plazan. Aste osoan, kartel lehiaketan parte hartu duten lanen erakusketa ikusgai izanen da Arizkunenea Kultur Etxean.



Argazkia: ONDIKOL

***Hirurteko Planean egindako azpiegitura lanei bisita***

**Ekainaren 27an, Alberto Catalan Nafarroako Gobernuko Toki Administraziako kontseilaria, Virginia Aleman alkatea eta bertze zinegotzi eta teknikari batzuk azkenaldian Elbeten, Anizen, Amaiurren eta Erratzun egindako lan batzuk ikusten ibili ziren. Obra hauek 2001-2003 Hirurteko Azpiegitura Planaren barrenean sartu dira. Guzira 1.650.000 euroko gastua izan dute, horietariko 990.000 Nafarroako Gobernuak ordaindua. Lau herrietan, saneamendu eta ur-hornidura lanak egin dira, baita zolaberritzeak ere. Erratzun, Gorostapolo eta Izpegiko errepide bazterrak ere garbitu dituzte. Balleko Udalak, Arizkun, Arraioz, Oronoz-Mugairi eta Almandozko saneamendu sareen berritzea hurrengo planean sartu du, 2,5 milioi euroko aurrekontuarekin.**

### Baztandar «berrien» bisita

Juan de Goyeneche arizkundarrak Nuevo Baztan izeneko herria sortu zuen XVIII. mendean Madril inguruan. Azken urteetan harreman handia dago baztandar "berri" eta "zaharren" artean eta madrildarrek bisita egin ziguten uztaileko lehen aste hondarrean. Baztan eta Nafarroako hainbat leku ikusi zituzten.

### Egur loteen eskaera

Aitzineko urteotan egin ohi den bezala, Nafarroako Gobernuko Mendi Zerbitzuari etxerako egur loteak prestatzeko beharrezkoak diren arbolak markatzeko eskaera luzatu dio Udalak. Egur lotea Baztanen erroldatuak dauden biztanleei soilik emanen zaie 6 euroren truke. Aurten, aipatutako egur loteen eskaera gauzatzeko epea, uztailaren 1etik abuztuaren 31ra izanen da. Egur lotearen eskaera udaletxeko bulegoetan eginen da.






BAZTAN

# Lekarozko ikastetxea Gobernuak erostea ona dela uste du UPNk

EAko udal taldeak gaiarekin izan duen «sekretismoa» salatu du

**ttipi-ttapa**

UPNko udal taldeak begi onez ikusi du Lekarozko kaputxinoen ikastetxea Nafarroako Gobernuak erostea eta erabakia *«baztandarrendako eta baztandarren garapenerako ona»* dela uste du. Aldiz, EAko udal taldearen sekretismoa salatu dute ekainaren 26an egindako prentsaurrekoan Begoña Sanzberro parlamentari eta zinegotziak eta Jose Antonio Bergara zinegotziak, ez baitzuten inoiz udala kaputxinoekin egiten ari zen gestioen berririk izan. UPNko zinegotziek aipatu zutenez, gan den urteko urriaren 14an bilkura izan zuten Miguel Sanz presidentearekin eta bertze kontseilari batzuekin eta ikastetxea erostera animatu zituzten. Honen berri eman nahi izan omen zioten EAko udal taldeari, baina UPNk aurkeztutako presazko mozioa gibelera bota zuten eta gero alkatea *«oporretara gan zen»*. Gainera, udal arkitektuak ikastetxearen erosketa kudeatzera Iruñera gan zirenean, *«horretarako ez zegoen ez diru-sailik ezta udal batzarraren akordiorik ere»* salatu du UPNk. Balleko Udalean gutiengoa izanik, *«ixilean lan egiten dugu, baztandar guzien alde»* diote UPNko zinegotziek.




ARGAZKIA: ONDIKOL

**Begoña Sanzberro eta Jose Antonio Bergara zinegotziak prentsaurrekoan.**

## Inaugurazio eta aurkezpen asteburua Amaiurren

**ttipi-ttapa**

Uztaileko lehen aste hondarra berezia izan zen Amaiurren, azken aldian egindako hainbat lan eta berrikuntza aurkezteko probestu baitzuten. Hasteko, Karrika Nagusiko zola eta argiteri berria estreinatu zuten. Elizan teilatua eta paretak moldatu dituzte eta seroraren etxean areto txukuna egin dute. Bertze aldetik, aspaldiko partez artoa jo zuten zaharberritutako errotan Rafael Etxebertz eta Lucia Rios errotazain berriek. Herriko Etxea ere berreskuratu dute amaiurtarrek, baita 1980. eta 1990. hamarkadetan hainbat txapel eskuratu zituen sokatira taldea.



ZUGARRAMURDI

# San Juan suak saltatzeko aukera izan da aurten aspaldiko partez

Bertzalde, Atxuria mendi taldekoak Orhira gan ziren uztailaren 2an



UTZITAKO ARGAZKIA

San Joan sua saltatzen gustora ibili ziren neska-mutikoak.

Margari eta Koro

Aspaldiko partez aurten saltatu ditugu San Juan suak!!. Zugarramurdin betitik ezagutu izan den usadio xahar hau galdua ginuen duela hamarbat urte, eta aurten berreskuratu da animazione haundiarekin gainera. Haurrek lan pulita egin zuten etxez-etxe kartonak biltzen, Mari Joxe eta Jaione trikitilariek giroa alaitu zuten eta afaritxo ttiki bat ere eskaini zen etorri zirenei... guzti horrekin arras ongi ospatu ginuen gau "magiko" hau.

### *Atxuria mendi taldekoak Orhira*

Atxuria mendi taldeak urteko ibilaldi nagusia egin zuen uztailaren 2an: argazkian ageri diren hamalau lagun horiek Orhi mendira igan ziren. Ondotik aperitifa egin zuten Otsagin eta Ezkarozen bazkaldu zuten, eguna borobiltzeko. Gan den urtean Hiru Erregeen Mahaina egin zuten eta heldu den urterako prestatu dutena Auñamendi da.

Irailа arte ez dute orai ateraldirik eginen.



ARGAZKIA: KORO

Atxuria taldeko hamalau mendizale igan zen uztailaren 2an Orhira. Irailean Arrikulunkara ganen dira, baina bitartean ez dute bertze ateraldirik eginen.






SARA

# 240 herritarrek departamentua sortzeko erreferendumaren alde sinatu dute

Bozkatzeko eskubidea dutenen %14a da hori



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

**Eskualdeko zortzi ekoizle biltzen dira ortzegun goizeko merkattuan gasna, barazkiak, haragia, erreximenta edo oliba olioa saltzera.**

Xan HARRIAGUE

Euskal eta Biarnes departamenduak sortzeari buruzko erreferenduma egin ahal izateko, 46 000 sinadura beharrezkoak dira. Hori dela eta, joan den ekainaren 10ean sinadura bilketa egin zen Lapurdi, Behe Nafarroa eta Xiberoko hainbat Herriko etxeetan. Saran ere hala izan zen. Herriko Etxeak sinadurak biltzeko espreski idekia egon zen. Oren batean, ateak hetsi zituztelarik, 240 Saratarrek erreferendumaren alde sinatu zuten. Bozkatzeko eskubidea duten Saratarren %14a. Jean Aniotzbehere Sarako auzapezak, Ttipi-Ttapari erran dioenez *«uste baino emaitza hobea atera da, baina agian Saratar gehiagok sinatuko dute, kanpaina huntan galdetzen dena erreferenduma da ez departamendua. Demokrata guziek demokraziaren oinarria den ariketa hunen alde egin beharko lukete»*. Ekainaren hondarrean, sinadura bilketa antolatzen duen Batera plataformak, jakinarazi duenez, momentuz 10 000 sinadura bildu dituzte. Gelditzen diren bertze 36000 biltzeko urria arte izanen dute. Erreferendumaren alde sinatu nahi duten Saratar guziek herriko etxean egiten ahal dute, asteko egun guzietan.

### *Ortzegun goizeko merkatuak*

Joan den urteko arrakasta ikusiz, turismo bulegoak ortzegun goizeko merkatuak berriz antolatzea erabaki zuen. Joan den urtean bakarrik uztailean eta abuztuan egiten baziren, aurten ekainetik irailera eginen dira. Gaur egun, herriko plazan eskualdeko zortzi ekoizle biltzen dira. Produktu ezberdin aunitz eros daitezke, gasna, behiena, ardiena edo ahuntzena, barazkiak, haragia, erreximenta eta oliba olioa bertzeak bertze.

Turismo bulegoan, orain arte biltzen diren jendearekin kontent dira erran digutenez *«erosle gehienak turistak dira baina sarafarrak ere tarteka hurbiltzen dira»*.

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542519
Maixan eta Véronique
SARA


SOULE
Hileta artea
Tel: 948 453444 • 629 659583
ARIZKUN

Maderas GOMEN
Tel: 948 580 645
Zaldubia industrialdea
IRURITA

· Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
· Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
· Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
· Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...



SEAT
HYUNDAI
Audi
ZOANSA
MARKA GUZIEN KONPONKETA
Banarta, 2 - Alkaiaga industrialdea
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

SENPERE

# Senpereko herria bisitatzea proposatzen du Michelin gidak

## Julen Madariaga libre utzi dute Parisen, baina justiziaren kontrolpean

Franck DOLOSOR

Euskal Herri osoari buruzko gida berri batekin ospatu ditu bere 80garren urteak Michelin gida ospetsuak. Liburuxka hortan zazpi lurraldeetako bisita leku frango aipatzen dute. Azala untsa begiratzen bada, herriko pilota plaza ageri dela ohartzen da irakurlea. Barneko orrialdeetan ere herria aipatzen dute. Eliza inguruan dauden ohidura haundiko etxeak, Jondoni Petrikariren eliza, sorginen gaztelua, aintzira eta Machalenea baserria eta gasnategiaz mintzo da Michelin gida bertzeak bertze. Horien inguruko zonbait xehetasun ekartzen ditu liburuxkak. Milaka gida salduko dira eta Michelinen aipamenak bisitari ainitz ekarraraziko du herrirat.

### *Julen Madariaga*

Julen Madariaga libre utzi zuten erearoaren 24an. Lau egun lehenago Zamaldegian, Senperen duen etxean arrastatu zuten ETAren iraultza zergaren sarearekin zerikusia zuela akusaziopean. Laurence LeVert epailea bera Senpererat etorri zen polizia operazioa zuzentzeko. Azkenean, Madariaga libre utzi zuten baina ikerketa bururatu arte Parisen egon beharko du, iduriz uztaila hondarra arte bederen. 20.000 euroko fiantza ere pagatu behar du, justizia sailak onartu du 20 hilabetean pagatzea. Aske gelditu bezain laster, Madariagak onartu zuen zonbait aldiz kontaktuak izan zituela iraultza zergarekin. Halere argitu du abokatua delako izan zela. Bere lanbidearen deontologiak eskaturik beregana joaten ziren jende mehatxatuak lagundu nahi izan zituen. Beti erran izan die ez zuela gehiago loturarik ETArekin. Bere arrastatzea Madrilen galdetu zuten eta Madariagaren ustez, bake prozesua trabatzea eta Aralar alderdiaren izen ona zikintzea izan dira operazioaren helburuak.

### *Urrezko Eztaiak*

Urrezko eztaiak ospatu dituzte berriki aintziran bizi diren Nazabal jaun andereek. Badira 42 urte gipuzkoar horiek Bidasoren iparraldean bizi direla. Lehenik Ariege eskualdean bizi ziren. 1980an lurra erosi zuten aintziran udako etxea egiteko. Seme alabak lanean hasi zaizkiotelarik, urte osoko bizilekua bilakatu dute. Haurrideek eta hautetsiek inguraturik urrezko eztaiak egin dituzte erearoaren 2an.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

**Nazabal jaun andere gipuzkoarrak aspalditik laketu dira herriko aintziran.**



ARGAZKIA: AFP

**Julen Madariaga bere etxean arrastatze egunean.**

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA



# EZKONTZAK

**Antonio Martinez Lizaso** eta **Maria del Amor Aginaga Igoa**, Doneztebe eta Narbartekoa, ekainaren 17an.

**Aitor Ariztegi Arotzena** eta **Silvia Suhas Bazterrika**, Oitz eta Urdazubikoa, uztailaren 1ean.

**Joseba Mikel Garcia Mitxelena** eta **Mercedes Urtxegi Unsion**, Irun eta Berakoa, ekainaren 23an.

**Marco Antonio Gutierrez Orellana** eta **Ana Gozelda Segales Kareaga**, Bolibiakoak, Elizondon, ekainaren 17an.

**Tomas Etxeberria Etxeberria** eta **Maria Elisa Mendoza Cordoba**, Azpilkueta eta Nikaraguakoa, ekainaren 23an.

**Francisco Javier Mindegia Otxandorena** eta **Maria Jesus Etxenike Elizetxe**, Oronoz-Mugairi eta Burlatakoa, ekainaren 24an.

**Jose Ignacio Gamio Altzuart** eta **Silvia Laurnagarai Jorajuria**, Arraiozkoak, uztailaren 1ean.



# SORTZEAK

**Leire Goia Errandonea**, Berakoa, ekainaren 20an.

**Naroa Etxegarai Ordoki**, Berakoa, ekainaren 20an.

**Asiri Ekain Zafra Sanz**, Doneztebekoa, ekainaren 16an.

**Eneko Barriola Zozaia**, Leitzakoa, ekainaren 18an.

**Yanik-Kenay Cumba Pichamba**, Leitzakoa, ekainaren 20an.

**Alba Santamaria Barbero**, Elizondokoa, ekainaren 26an.



# HERIOTZAK

**Jose Bengotxea Orkin**, Arraiozkoa, ekainaren 20an, 62 urte.

**Victoria Iribarren Urroz**, Arizkungoa, ekainaren 21ean, 94 urte.

**Flavia Etxeberria Indaburu**, Etxalarkoa, ekainaren 22an, 88 urte.

**Antonio Almandoz Mitxelena**, Berakoa, ekainaren 22an, 60 urte.

**Maria Concepcion Olabe Sobrino**, Elizondokoa, ekainaren 27an, 89 urte.

**Luis Alvarado Martinez**, Lesakan, ekainaren 27an, 85 urte.

**Maria Galainena Etxenike**, Urdazubikoa, ekainaren 28an, 93 urte.

**Baldomera Etxepeteleku Pikabea**, Lesakakoa, ekainaren 28an, 85 urte.

**Patxi Artieda Iantzi**, Berakoa, ekainaren 29an, 37 urte.

**Feliciana Gonzalez Perez**, Elizondokoa, ekainaren 30ean, 86 urte.

**Petra Pascal Villanueva**, Elizondon, ekainaren 30ean, 89 urte.

**Pakita Altzugarai Mitxelena**, Lesakakoa, uztailaren 1ean, 54 urte.

**Jacinto Gartziarena Mariezkurrena**, Leitzakoa, uztailaren 2an, 61 urte.

**Jesusa Sanzberro Elizalde**, Berakoa, uztailaren 3an, 89 urte.


*Rekordatorioak egiten ditugu*



*Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua*

KULTURKARI
Andutzeta 12, Etxalar
Tfnoa: 948 63 54 58




**Patxi ARTIEDA YANCI**

**2006ko ekainaren 29an hil zen Beran**

*Egun gogor hauetan gure ondoan izan zareten eta gure saminarekin bat egin duzuen guziei, mila esker.*

**EMAZTEA, ALABA ETA FAMILIA.**



**Baldomera**
**ETXEPETELEKU PIKABEA**

**2006ko ekainaren 28an hil zen Lesakan, 85 urte zituela.**

*Amatxi, zure umorea eta begien dizdira beti egonen dira gurekin.*

**ZURE BILOBAK.**




ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

**Niko MINDEGIA**

*Eskubaloi jokalari doneztebarra*

# «Richardson eta Balic-ekin batera jokatu ahal izatea ohore handia izan da neretzat»

- **Niko Mindegia, 17 urteko eskubaloi jokalari doneztebarrak, jubenil mailako Europako eskubaloi txapelketan parte hartuko du uztailaren 26tik abuztuaren 7ra Estoniako Tallin hirian.**
- **Espainiako selekzioarekin lehen ere aritu bada ere, hau da bere lehen txapelketa ofiziala.**
- **Duela bi urte San Antonio taldeak fitxatu zuen Errekatik. Aurten, batez ere bigarren taldean aritu da, baina talde nagusian ere aritu da Asobal ligako hiru partidetan.**

**Aitor AROTZENA**

Doneztebeko bestak *«bertze edozein gaztek bezala»* aprobetxatu bezain abudo, uztailaren 4an, Espainiako gazte mailako eskubaloi selekzioarekin joan zen Niko Mindegia doneztebarra Ciudad Realera. Portugalen txapelketa jokatu ondotik, uztailaren 19tik 25era Iruñean izanen dira eta segidan, Estoniara joanen dira, Europako txapelketan parte hartzera. Beraz, kasik hilabete emanen dute txapelketa prestatzen, baina Nikoren ustez, beharrezkoa da: *«Bi aste genituen geldirik eta fisikoki martxan paratzeko behar genuen horrelako kontzentrazio bat. Taldekideak ezagutzeko eta elkar ongi hartzeko ere behar da hilabete bat»*. Txapelketan zer emanen duen taldeak ez daki, baina talde gogorra suertatu zaie hasierako fasean: *«Alemania, Kroazia eta Hungaria ditugu multzoan. Alemania eta Kroazia Munduko hoberexkoenak dira eta Hungaria ere ez da urruti… Bi lehenbizikoak bakarrik sailkatzen direla kontuan hartuz, zail izanen dugu»*.

**«Alemania, Kroazia eta Hungaria ditugu gure multzoan, Munduko hoberexkoenak... Bi lehenbizikoak sailkatzen direla kontuan hartuz, zail izanen dugu aitzinera egiteko»**

**«Aunitz ikasten da jokalari haundi hauen ondoan»**

Duela bi urte arte Errekan aritzen zen Niko Mindegia eta Iruñeko Portland San Antonioren deia hartu zuen. Aldaketa nagusia, eskubaloiari eskaini beharreko denboran somatu du doneztebarrak: *«Ordu aunitz sartu behar dira, gehiago entrenatzen dut, baina bizimodu berdintsua daukat»*.

Jubenilen taldean eta batez ere, bigarren taldean aritu da, baina lehenbiziko taldean aritzeko aukera ere izan du. Iaz, Fermin Tajaduraren omenez jokatutako partidan, Asobaleko izarren kontra aritu zen Portland eta jokatu zituen minutuetan gol bat egiteko aukera izan zuen Mindegiak. Richardson, Balic edo Garraldaren ondoan jokatzeko modua izan du eta hori ezin du edozeinek erraten ahal: *«Hori ohore handia da neretzat, gainera aunitz ikasten duzu, hauek edozeinek baino gehiago erakusten dizute, kriston laguntza da»*.

Aurten, Asobal ligako hiru partidetan jokatzeko modua izan du eta Txapeldunen Ligako final laurdenetako partidarako deitu zuen Zupo Ekisoainek. Portland San Antonio eta Bartzelona izan ziren aurrez aurre Iruñean. Mindegiak ez zuen jokatu (*«joaneko partida zen»* dio), baina gozatu ederra hartu zuen. Heldu den urteari begira talde nagusian gehiago sartzeko itxaropena du Nikok, *«baina hori ezin da inoiz erran, lesioak errespetatu behar dizute, fitxaketa berriak ere izanen dira…»*.

MENDI LASTERKETA

# Fernando Etxegaraik Euskadiko txapelketa irabazi zuen Isaban

## Unai Barazabal azpilkuetarra ustekabean hirugarren izan zen

**Xan HARRIAGUE**

Fernando Etxegarai, Manttale taldeko korrikalari beratarrak Euskadiko Mendi Lasterketa irabazi zuen uztailaren 3an, Erronkariko mendietan burututako Camille Extreme lasterketa gogorra irabazi ondotik. 31 kilometroko luzera eta 3.500 metroko desnibela duen proba akautzeko 3 ordu 5 minutu eta 4 segundu behar izan zituen Etxegaraik eta kasik hamar minutu atera zizkion bigarren izan zen Arkaitz Soduperi. Hirugarren postua, urtetan txirrindularitzan aritu den AzpilkuetakoUnai Barazabalek eskuratu zuen, Sodupek baino 6 segundu gehiago erabilita (3h.14'51").



UZTITAKO ARGAZKIA
**Fernando Etxegaraik ia 10 minutu atera zizkion bigarren sailkatuari.**

Hasierako kilometrotan Ionut Zinka faboritoa aitzinetik izan zen eta 16. kilometroan lau minutuko aldera ateratzen zion lehen segitzaileari. Baina Etxegaraik lasaitasunez hartu zuen proba: *«Joan den urteko partehartzeak kontrolatu behar zela eta bukaerarako indarrak gorde behar zirela erakutsi zidan»*. Zinka bosgarren izan zen azkenean.

Manttale taldeko bertze korrikalariei dagokienez, Patxi Irazoki igantziarra zortzigarren izan zen; Unai Santamaria hernaniarra bederatzigarren, Joselu Loiarte eta Loro Pikabea beratarrak 32 eta 33. postuetan sartu ziren eta Ramuntxo Lamothe saratarra 57.ean. Emakumeen artean, Alicia Romerok irabazi zuen.

TXIRRINDULARITZA

# «La Miguel Indurain» uztailaren 23an eginen da Beran

**ttipi-ttapa**

Uztailaren 23an eginen da La Miguel Indurainen XV. Edizioa. 8:30ean hasita, txirrindulariek bi ibilbide egiteko aukera izanen dute, luzea 206 kilometrokoa eta laburra, 146 kilometrokoa. Izena emateko hainbat aukera daude: uztailaren 15a baino lehen internetez egin daitezke www.lainduraín.com helbidean. Uztailaren 22 eta 23an, Eztegara pilotalekuan jarriko den bulegoan izena eman daiteke. Bezperan 15:00etatik 21:00etara eta egun berean goizeko 6:30etik froga hasi baino ordu erdi lehenago bitartean izena emateko aukera dago.

HERRI KIROLA

# Iparraldeko Jokuetako txapeldunak erabaki ziren Orbaitzetako hirugarren jardunaldian

## Xabi Sein igantziarra ingude eta lasto altxatzen irabazle izan zen

**ttipi-ttapa**

Uztailaren 2an Orbaitzetan jokatu zen Iparraldeko Joku Torneoaren hirugaren eta azken jardunaldia. Honenbertzez, sailkapen orokorra ere erabaki zen. Koxkor biltzen, Iñigo Lasaga etxalartarra izan zen bizkorrena Orbaitzetan. Baina txapelketa honetan, bi denborarik onenak kontuan hartzen direnez, Fernando Etxegarai beratarra izan da txapeldun, Iñigo Lasaga eta Patxi Irazoki igantziarraren aitzinetik.

Ingude altxatzen, Xabi Sein igantziarra izan da irabazle, Carlos Sein anaiaren aitzinetik. Harrijasotzen, Xabier Igoa nagusitu da, Josetxo Urrutia leitzarraren aitzinetik.

Lasto altxatzen ere Xabi Sein igantziarra izan da garaile, Iñaki Bereau, Carlos Sein eta Oskar Telletxea herritarren aitzinetik. Hain xuxen, Oskar Telletxea izan da txinga eramaten txapeldun, Garraldako Jon Iriarte, Aldatzeko Xabier Igoa eta Josetxo Urrutiaren aitzinetik. Zakularien lasterketan Berriozarrek irabazi zion Igantziri (Iñaki Bereau, Xabier Ariztegi eta Carlos Sein).



# AGENDA egunez egun

## ERAKUSKETAK

### BERA

**Uztailaren 7tik 28ra arte** Oaia Perurenaren margo erakusketa Kultur Etxean. Asteartetik igandera 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara (Igande arratsaldetan itxia).

### BERTIZ

**Uztailaren 23a arte** «Gure tximeletak» erakusketa zabalik Bertizko Natur Parkeko jauregiko erakusketa-aretoan.

### DONEZTEBE

**Uztaila osoan** Maxus margolariaren lanak ikusgai Turismo Bulegoan. 10:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

### ELIZONDO

**Uztailaren 1etik 15era** Roke Lasaren margo erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean.

### GOIZUETA

**Uztailaren 17tik 22ra** drogen erabilerari buruzko erakusketa ikusgai ilunabarrero gaztetxearen beheko solairuan.

## BILERAK

### GOIZUETA

**Uztailaren 14an** koru berriari buruzko hurrengo bilera eginen da 20:00etan Herriko Etxeko Ganbaran.

## SOLASALDIAK

### GOIZUETA

**Uztailaren 19an** drogen erabilerari buruzko olasaldia eskainiko du Askagintzako Txus Congilek 19:00etan Gaztetxean.

## IKASTAROAK

### GOIZUETA

**Uztailaren 17, 18, 20 eta 21ean** antzerki ikastaroa Gaztetxean, 19:00etan.

## TELEBISTAKO TXOKOA





IGANDE HONETAN ELIZONDON

# Baztandarren Biltzarra ttipi-ttapa telebistan

Doneztebeko San Pedro bestekin ekin zioten telebistako lankideek aurtengo «Bestaz besta» saioari. Ondotik, Lesakako Sanferminen txanda ailegatu da. Urtero bezala, egunez egun Doneztebeko eta Lesakako besta-giroa pantaila ttikian bildu da, Maite Bidarte eta Xan Harriague aurkezleen eskutik. Herrietako bestei tarte bat utziz, igande honetan Elizondon eginen den Baztandarren Biltzarraren 43. edizioko irudiak emitituko dira heldu den astelehenean Ttipi-ttapa telebistan. Aurten, ordu erdi lehenago abiatuko den orgen desfilea hurbiletik segitzeko modua izanen dugu, irudirik ikusgarrienak eta elkarrizketa bixienekin batera. Eskulanen erakusketan edo herri bazkarian ere irudiak bilduko dira, besta haundi honen giroa zuen etxeetara eramateko.

**Bestetako DVD eta bideoak salgai**

Urtero bezala, Ttipi-ttapa Telebistak bestetako DVD eta bideoak prestatu ditu. Doneztebeko San Pedroetako edo San Ferminetako saio berexiak ikusterik izan ez duenak edo ikusita ere, etxean gorde nahi duenak, oraindik badu aukera. 15 euroan salgai izanen dira. Horretarako, ttipi-ttapako 948 635458 telefonora deitu behar da.

## DISKAK



*13 Mantracks*

**SÖK**

*GOR, 2006*

Sök taldearen lehen riff, akorde eta oihuak 1999 urtearen erdialdera Iruñerrian hasi ziren mamitzen. Hainbat kontzerturen ondotik, 2002an lehen maketa izanen zenaren abestietan buru belarri sartu ziren. 2003ko udaberrian, Dikers taldeko Iker Piedrafitarekin grabatutako lehen maketa hura plazaratu zuten sei kanturekin. Maketa ongi banatu zen eta horrek Euskal Herri osoan kontzertu zirkuitua aberastea ekarri zien. 2004ko martxoan maketan grabatutako «200.R» abestia Zero Records disketxeko «LPH&friends» bilduman sartzen da eta estatura jauzi egiteko ahalegina egiten dute. Ia ehun kontzertu eman ondotik, 2004ko hondar aldera lehen diskoa osatzen duen materiala ontzera ekin zioten. Ekainean Gor disketxeak argitaratu duen «13 Mantracks» da emaitza.

## BASERRIA

Datu iturria: Nafarroako Gobernua
(Ekainaren 23tik 30era bitarteko prezioak)

### ZERRIKIA



**Zerrikumea**
(19 kilo): 33,00 € (=)

**Zerri gizena**
1,320 € kiloa. (+0,020)

**Zerramak:**
0,510 € Kg/bizirik. (+0,020)

### BEHIKIA



**Aretze gizenak:**
**Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,74 (-0,03)
**1.koa** 3,49 (-0,03)
**2.koa** 3,29 (-0,03)
**Urruxak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,86 (-0,03)
**1.koa** 3,61 (-0,03)
**2.koa** 3,38 (-0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Aretze mestizoak:**
urruxak 210,00 (=)
idixkoak 276,00 (=)

**Aretze nabarrak:**
urruxak 170,00 (=)
idixkoak 215,00 (=)
**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 2,94/3,05
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90
**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 6,80 /7,70
8-10 kilokoak: 5,50 /6,20

## JAKIN BEHARREKOAK

# Tratamendu estetikoei buruzko informazio zehatza eskatu behar da

### Aurrez mediku espezialista edo dietista batengana jo behar da

Pertsona aunitzek, beraien gorputzaren irudia gaur eguneko edertasun-kanonei egokitzeko helburuarekin, dieta zorrotzak edo ebakuntza estetikoak egiten dituzte, batzuetan osasunean arazo larriak eragin dezaketenak. Modak inposatzen duen «pisu ideala» bilatzeak, anorexia edo bulimia bezalako eritasun larrien arriskua dakar.

Irache kontsumitzaile elkarteak, dieta egin nahi duten pertsonek aurretik mediku espezialista edo dietista batengana jotzea aholkatzen du, egitan gehiegizko pisu arazorik badagoen eta dietan jartzea beharrezkoa den zehazteko. Profesional horrek, loditzeko arrazoiren bat ote dagoen kontraindikazio edo patologiaren bat gertatzen ahal ote den aztertuko du. Ez fidatu, egun guttitan eta esfortzurik gabe pisua galduko duzula segurtatzen duten «formula magiko», «mirari produktu» eta gisakoekin. Ez erosi medikamentuak Internet bidez, kontrolik gabe saltzen baitira. Mehatzeko produkturen bat erabili behar baduzu, galdetu aitzinetik mendikuari, batzuk adikzioa sortu edo libratzekoak eduki baitezakete.



**Ez fidatu egun guttitan pisua galduko duzula segurtatzen duten produktuekin.**

Kexurik gehienak behin tratamentua akautua egiten dira, kontsumitzaileari aurrez hitz emandako emaitza lortu ez denean.

Egoera hauek ez gertatzeko, informazio osoa ulertzeko moduan eskuratzeko dugun eskubidea onartzen du legeak, ahoz eta idatziz. Diagnostikoa, pronostikoa eta tratamendu aukerak zehaztu behar dira. Edozein tratamendu egiteko baimena eman behar du kontsumitzaileak, eta kirurgia ebakuntza edo osasunerako arriskua nabarmena baldin bada, baimena idatziz eman behar du.

Tratamendua hasi baino lehen, hori egin behar duten profesionalei mediku-gaitasuna ziurtatzea eskatzea aholkatzen du Irachek. Zalantzak izanez gero, Mediku Eskola Ofizialarekin harremanean jarri. Edozein gisara, informazioa idatziz eskatu eta kontratu batean bildu.

## ALDIZKARIAK




**EUSKAL HERRIA**

*22. zbk*
*2006ko ekaina-uztaila*

Jakin badakigu gure lurra biziki mendizalea dela. Euripean nahiz eguzki galdatan besta egun orotan gure mendi leunak eta zorrotzak mendizalez gainezka daude. Milurtekoaren hasiera honetan mendiaren ateak ireki dira parez pare. Haratago doazen hainbat kirol herritartzen ari direla begi bistan dago. Mendian barrena bizikletaz ibiltzea. Arroilan beheran sokaren laguntzaz. Itsasoaren olatu eta haizearen indarraren bidez nabigatzea. Ur biziekin jolastea. Zeruko hodeietan hegan egitea. Hameka bide berri zabaldu dira naturaz gozatzeko. Hori dela eta, naturaren kirolei eskaini die Euskal Herria aldizkariak bere dossier nagusia. Bide beretik, bi eguneko rapela dute Munduan zehar egin duten bidaian. Oraingoan Venezuelako ur jauzirik harrigarrienean. Garai bateko kirol egiteko modua ere nagusitzen da Bilbao Sportivo izeneko artikuluan.

## AGENDA egunez egun

### BESTAK

**ARANO**

**Uztailaren 22tik 26ra** Santiago bestak. Xehetasunak 18. orrian.

**ELGORRIAGA**

**Uztailaren 22tik 26ra** Santiago bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

**ELIZONDO**

**Uztailaren 22tik 29ra** Santiago bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

**LESAKA**

**Uztailaren 25ean** Banartako bestak Lindduurrenbordan. Xehetasunak 10. orrian.

**ITUREN**

**Uztailaren 14tik 17ra** herriko bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

### OSPAKIZUNAK

**ELIZONDO**

**Uztailaren 15 eta 16an** Baztandarren Biltzarra ospatuko da. Orga desfilea ordu erdi aitzindu da igandean eta 11:30etan abiatuko da. Xehetasunak 22. orrian.

### ZINEMA

**ELIZONDO**

**Uztailaren 13an** «Harry Potter y el cáliz de fuego» filmea eskainiko da Udako Zinea Zikloan. Emanaldi guziak 22:30ean Merkatuko Plazan.

### IKASTAROAK

**ETXALAR**

**Uztailaren 21,22 eta 23an** Reiki hastapen ikastaroa Manu Garcia irakaslearen eskutik Mokorrekoborda baserrian. Informazioa 617185990 telefonoan.

# MERKATU TTIKIA

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

Sail honetan iragarkia jartzeko 6 € ordaindu behar da.
Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da
(nahi izanez gero irudiarekin)
6 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304625 kontuan sartu.

00-34

…ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak

**ADOS**
• ELIZONDO.
- Apartamentu eta pisuak salgai.
• BIDASOA
- Etxeak, borda eta baserria salgai.
• DONEZTEBE.
- Unifamiliarra 2.000 m²ko partzelarekin salgai.
- Eraikuntza berriko pisuak salgai.
- 2. eskuko pisu erreformatua salgai. Aukera ona.
- 10 minutura: baserria, borda eta lurrarekin salgai. Borda ura eta argiarekin.
• BAZTAN.
- Baserri, borda eta lur eremuak salgai.
• PROMOZIO BERRIAK:
• NARBARTE. 2 eta 3 gelako pisuak aparkaleku eta trasteroarekin salgai.
• IGANTZI. Pisu eta apartamentuak salgai.
• ARIZKUN.
- Nabe industrialen promozioa.
INFORMA ZAITEZ!
948 451 841 / 948580705
www.ados-inmobiliaria.com

ANZABAL
Santiago 15 - ELIZONDO
Tfnoa: 948 580804
anzabal@anzabal.com
BAZTAN-BIDASOA
Lur, etxe, baserri, borda eta pisuen salmenta eta alokairuak.
BAZTAN-BIDASOA
Etxebizitzak behar ditugu errentan emateko eta saltzeko.

## ETXEBIZITZAK
### 101 Saldu

**LEITZA.** Pisua salgai, 100 m², igogailua eta trastelekuarekin. Eguzkitsua. ☎ 699 461365.

## ETXEBIZITZAK
### 104 Errentan hartu

**DONEZTEBE.** Pisu ttiki bat errentan hartuko nuke. ☎628 800865.

**BERA** inguruan pisua errentan hartuko nuke, garajearekin. ☎ 629 971838.

## GARAJEAK/LOKALAK
### 109 Errentan eman

**BERA.** Garajea errentan emateko Correos ondoan. Apropos motoak eta bizikletak gordetzeko. ☎ 948 630881.

## LURRAK/ORUBEAK
### 112 Saldu

**LESAKA.** Bi etxe egiteko lur eremua, eraikitzeko baimenarekin salgai. Petrixeneko gainean. Pista ormigonatua, argindarra eta urarekin. ☎ 948 637210 (20:00etatik aitzinera).

## ZERBITZUAK
### 205 Zurginak

ARANTZA
Zurgindegia
- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe
Jose Miguel Errandonea
Tel: 948 63 [illegible] - 647 [illegible]
Garritibaila - ARANTZA

## LANA
### 301 Eskariak

**Emakume batek** etxeak garbitzen lan eginen luke Doneztiben, goizez 4 orduz. ☎ 628 800865.

**Emakumea** eskaintzen da hotel, jatetxe edo bertze lanetan aritzeko, gauez hobe. ☎ 690 757814.

**Esperientzia duen** mutil bat eskaintzen da herriko bestatan zerbitzatzeko. Euskalduna. ☎ 600 730919.

**Gizona** eskaintzen da edozein lanerako, esperientzia duen txoferra C gida-baimenarekin. ☎ 690 757814.

**Emakume euskalduna** eskaintzen da interna edo externa, zaharrak zaindu, sukalderako eta garbiketa lanetarako. ☎ 635 204339 (19:00etatik 21:00etara).

**Lan bila zabiltza?**

LAN ESKAINTZA
NAFARROAKO GOBERNUA
- Administrari laguntz.
- Zelariak
- Elbarri fisikoendako 41 lanpostu
BURLATA
Udaletxeak behar du
- Peoiak
- Garbitzaileak
- Gidariak
- Lorezainak
- Igeltseroak
- Atezainak
- Administrari laguntz.

LAN ESKAINTZA
GIDARIAK
Abudo sartzeko
- Nafarroako Gobernua
- Udaletxeak
UDALETXETAN INKORPORAZIO BERRIAK
- Lorezainak
- Elektrizistak
- Iturginak
- Langileak
- Gidariak
- Peoiak

Presta zaitez. Informazioa dohain.
948 199 596

### 302 Eskaintzak

**Zurgindegirako langilea** behar da. Esperientziarekin. ☎ 948 451906.

**IRUN.** Ola sagardotegian lanean aritzeko kamarera behar da. Euskalduna bada hobe. Nahi badu fijo egiteko modua bada. ☎ 659 285620.

**Udarako kamarera** behar dugu, Behobiako mugan, taberna batean. Kondizio oso onak. ☎ 629 472589.

**Soroslea** behar da uztaila eta abuztuan lan egiteko Etxalarko Bentatan. ☎ 948 635000.

**BERA.** Jatetxe batean kamarera behar da uztaila eta abuzturako. ☎ 948 630392.

FDF
OPOSICIONES
Irakaslego permanentea
Esperientzia zabalarekin
Klasera agertu behar da
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA
FORUZAINA
UDALTZAINA
ZELARIA
BESTEAK…
Gaitegiak enkarguz egiten dira
IRUÑA: Singular Eraikina
PioXII etorb. 1 behea
Tel: 948 22 71 23

**BERA.** Sukaldari laguntzailea behar da jatetxe batean. ☎ 654 385363.

**Baztan-Bidasoan** arkitektu teknikoa behar da. ☎ 676 509312.

**BERA.** Ibardinen lan egiteko kamarera behar da uztaila eta abuztuan. Frantsesa jakin behar da. ☎ 948 631551.

IKUSENTZUNEZKO ZERBITZUAK
LATSAGA
latsaga@telefonica.net
Tl/faxa: 948 637 546 • Mug.: 609 477 277 • LESAKA
SOINUA eta IRUDIA:
Jaiak, ekitaldiak, feriak, erakusketak, txosnak, ezkontzak, kontzertuak, megafonia, bideo, multimedia, diapositibak, zine emanaldiak…
IKUS-ENTZUNEZKO TRESNERIA

**SUNBILLA.** Kanpineko jatetxean aritzeko langileak behar dira. ☎ 948 450540.

**ELIZONDO.** Adatsa ileapaindegian pelukera bat behar da. ☎ 948 452467.

**Harreragileak** behar dira eraikin publikoetako lanpostuak betetzeko. ☎ 948 199596.

**Ofizialak.** Behar dira: pintoreak, mekanikoak, elektrizistak, zurginak, igeltseroak. Kontratu mugagabea. ☎ 948 199596.

**Burlata.** Udaletxeak bete behar du: peoiak, garbitzaileak, gidariak, lorazainak, igeltseroak, atezainak, administrari laguntzaileak. ☎ 948 199596.

**Nafarroako Gobernua.** Bete behar du administrari laguntzaile, zelari eta elbarri fisikoendako 41 lanpostu. ☎ 948 199596.

**Garbitzaileak.** Abudo sartzeko udaletxe eta ikastetxetan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Sukalde laguntzaileak.** Ospitale eta ikastetxetarako lanpostu libreak. Informa zaitez. ☎ 948 199596.

**Gidariak.** Abudo sartzeko Nafarroako Gobernuan eta Udaletxetan. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Zaintzaileak, hezitzaileak.** Haurtzaindegi eta jangela publikoetarako lanpostuak. Informa zaitez. ☎ 948 199596.

**Igeltseroak.** Udaletxetarako lanpostuak. Behar da: Espainiar nazionalitatea. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

**Zerbitzu anitzerako langileak.** Udaletxetarako lanpostu libreak. 1.400 €/hilabetean. ☎ 948 199596.

## MOTORRA
### 501 Salerosketak

**Galloper Super Exced** 2500 cc salgai Lesakan. ☎ 618 963156.



**Suzuki Vitara** salgai, SS-AU matrikuladuna, 85.000 km. Extrak. Prezioa: 4.500 euro. ☎ 666 819810 (arratsaldetan).

**Nissan Patrol** laburra salgai, NA-Z matrikuladuna. Txuri kolorekoa. ☎ 948 631098 (arratsetan).

**Fiat Bravo** 1.8 GT salgai, 115 cv, beltza, NA-AX matrikula. Llantak Clima Easy. Prezioa: 3.600 euro. ☎ 649 530501.

**Scooter motoa** salgai, Yamaha Jog RR markakoa. Egoera onean. ☎ 679 214229.

**Partner** furgoneta salgai, gasoilekoa, 1998koa. Egoera onean. ☎ 948 510737.

## MOTORRA
### 502 Tailerrak

GANIX
TAILERRA
Ibilgailuen mekanika eta elektrizitatea
BERA
FIAT zerbitzua
Iturlandeta, 9 - Tel: 948 630 669

TAILERRA
BOAN
Autoen salmenta eta konponketa
Tel: 948 630 623
BERA

TALLERES SANTESTEBAN
✆ 948 450282 • DONEZTEBE
KOTXE IA BERRIEN SALMENTA
(6-10 HILABETEKOAK)
CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE, SEDAN, MEGANE GRAND TOUR
ERA GUZTIETAKO ERREMOLKEAK
EHIZARAKO, MOTOAK, ZALDIAK ETA QUAD-AK GARRAIATZEKO... ZURE NEURRIRA EGINDAKO ERREMOLKEAK

MENDAUR MOTOR
DONEZTEBE
Bigarren eskuko kotxeak:

## ANIMALIAK
### 602 Salerosketak

**Lastoa** salgai. Pakete txikiak eta handiak. Garagarra, garia eta oloa. Urte guzian serbitzen da. ☎ 943 366040 edo 607 457004.

**Basurde ehizarako** sei zakurkume ar salgai. Sabueso frantsesa arrazakoak. 3 koloretakoak. ☎ 639 922256.

**Limusina** arrazako urte terdiko zekorra, zezenetarako. Ikusgarriak! ☎ 686 476480.

## DENETARIK
### 701 Galdu-aurkituak

**Eraztuna** galdu da Berako Herriko Etxearen inguruan, Besta Berri egunean. Urrezkoa da, harri urdin batekin. Balio sentimental handia du. ☎ 606 102149.

## DENETARIK
### 702 Salerosketak

Egoera onean dagoen **ostatuko tresneria** salgai: kafetera, kamara, ontzi garbigailua, izotz makina. Prezio interesgarria. ☎ 667 708889.

**Solarium-a** salgai. Philips markakoa, 8 tubokoa, berria, erabili gabea. 300 euro. ☎ 626 332322.

**Haurrentako silleta** salgai: kuko, kapota eta silleta. Ia berria. Jané markakoa. Zakuak eta sonbrilla opari. 300 euro. ☎ 626 332322.

## DENETARIK
### 703 Bertzelakoak

**Alemaneko klaseak** hartuko nituzke Baztan edo Malerrekan. ☎ 676 035845.

## HARREMANAK
### 801 Agurrak

**Aupa Iñaki, Ainara eta Imanol!** Besarkada handi bat zuentzat eta gainerako guztientzat! Euskal presoak etxera!

**Beratik** muxu bat eta besarkada kementsu bat Aratz eta Kristinarentzat. Eutsi gogor!


Piscinas Zizur, S.L.
T. 948 38 23 93 / M. 661 43 46 66
piscinaszizur@piscinaszizur.com
IGERILEKUEN ESTALKIAK - FABRIKAKO PREZIOAK
Igerilekuan eraikuntza eta mantentze-zerbitzua, bainutegi turkiarrak, hidromasajea, bainuetxea, gimnasioak...
GOZATU IGERILEKUAZ ZUREEKIN URTE OSOAN





# TTIPI-TTAPA TELEBISTAREN UDAKO PROGRAMAZIOA

## ASTELEHENETIK - ORTZIRALERA

**7:55** Urtebetetzeak
**8:00** Marrazki Bizidunak
**8:25** Urtebetetzeak
**9:00** Merkatu Ttikia
**13:00** Urtebetetzeak
**13:10** Marrazki Bizidunak
**13:35** Urtebetetzeak
**13:43** GAURKOAK
**13:45** Bestaz Besta Udagiroan (errepikapena)
**14:45** Marrazki Bizidunak
**15:15** Urtebetetzeak
**15:35** ETB/ Goitb/Goierri ERREPIKAPENA (Berbaire, Teknopolis, 16mm, Elkartasun Bidean, Behazulo)
**16:10** ttipi-ttapak ekoiztua ERREPIKAPENA (Eltze Beroa, Mugatik Harat, Izan Ziren, Sustraia eta Ilunpean (Goiena Tb)
**16:45** Bestaz Besta Udagiroan (errepikapena)
**17:45** ETB/ Goitb/Goierri ERREPIKAPENA (Berbaire, Teknopolis, 16mm, Elkartasun Bidean, Behazulo)
**18:30** Urtebetetzeak
**18:35** Marrazki Bizidunak
**19:00** Urtebetetzeak
**19:10** ttipi-ttapak ekoiztua ERREPIKAPENA (Eltze Beroa, Mugatik Harat, Izan Ziren, Sustraia eta Ilunpean



**19:45** BESTAZ BESTA UDAGIROAN
**20:45** Marrazki Bizidunak
**21:35** ETB/ Goitb/Goierri ERREPIKAPENA (Berbaire, Teknopolis, 16mm, Elkartasun Bidean, Behazulo)
**22:10** ttipi-ttapak ekoiztua ERREPIKAPENA (Eltze Beroa, Mugatik Harat, Izan Ziren, Sustraia eta Ilunpean (Goiena Tb)
**22:45** Bestaz Besta Udagiroan (errepikapena)
**23:35** ETB/ Goiena/Goierri ERREPIKAPENA (Berbaire, Teknopolis, 16mm, Elkartasun Bidean, Behazulo)
**00:05** Bestaz Besta Udagiroan (errepikapena)
**01:00** ttipi-ttapak ekoiztua ERREPIKAPENA (Eltze Beroa, Mugatik Harat, Izan Ziren, Sustraia eta Ilunpean (Goitb)
**01:35** Bestaz Besta Udagiroan (errepikapena)

## LARUNBATA IGANDEA

**8:00** Marrazki Bizidunak
**11:00** Urtebetetzeak
**11:10** Merkatu ttikia
**12:00** UDAGIROAN / BESTAK
**13:00** Berbaire
**13:30** Izan Ziren
**14:00** Teknopolis
**14:30** Sustraia
**15:00** 16mm
**15:30** Ilunpean
**16:00** Elkartasun Bidea
**16:30** Eltze Beroa
**17:00** Behazulo
**17:30** Mugatik Harat
**18:00** UDAGIROAN / BESTAK
**19:00** Berbaire
**19:30** Izan Ziren
**20:00** Teknopolis
**20:30** Sustraia
**21:00** 16mm
**21:30** Ilunpean
**22:00** Elkartasun Bidean
**22:30** Eltze Beroa
**23:00** Behazulo
**23:30** Mugatik Harat
**00:00** UDAGIROAN / BESTAK

# betiko

PVC eta aluminio aroztegia

· PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHOEN FABRIKAZIOA · SALMENTA ETA INSTALAZIOA









- NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK
- DISEINU ETA MODELO EZBERDINAK
- BANAKAKO SOLUZIOAK
- ISOLAMENDU TERMIKO ETA AKUSTIKOAK
- ENERGIA AURREZPENAK

www.betikopvc.com betikopvc@terra.es
Ordoki industrialdea z/g · Tel.: 948 453 259 · Faxa: 948 453 423 · 31713 ARIZKUN (Nafarroa)